

anaitasuna

1978.EKO APIRILAREN 1/15EKOA - 361 - ZENBAKIA 50 PTA.

6

GERRA NAHI DU'TE

GERRA EMANEN DUGU



EUSKARAZ ZER? HONA GURE HITZA: EGUNORO ERABILTZEA.



Egin dezagun egunkari elebidun bat, gure kale, eskola eta lantegietan euskara egunoro erabil-araz dezan.

Geure hizkuntza baitugu gure herri bizitzaren erakusle bakarra.

Iritsi baita euskara geure etxe-zulotik ateratzeko garaia. Guztiok hartu behar dugu esku, Egin geurea, elebiduna, geuk nahi dugun hori izan dedin.

Elkargoan eginez. Guztiok finantziatuz.

Egin dezagun geure egunkari berri eta egi-zalea.

Harpide zaitetz eta partzuer-kontu bat eskura, kupoi hau bete eta ORAIN, S.A.-ri bidaliz: ORAIN, S.A.

Apartado 1567. Bilbao.

Apartado 444. Pamplona.

Apartado 1397. San Sebastián.

Apartado 420. Vitoria.

EGIN egunkariaren finantziaketan esku hartu nahi dut:

Urteko harpidetzaren bidez.

(2.000 a 100.000.) _____ pezetako partzuer-kontuaren bidez.

Ordaintzeko era

Giro n.º _____ Cuenta corriente n.º _____

Bankoa _____

Deitura _____

Helbidea _____ Telefonoa _____

Hiria _____ Probintzia _____

egin

HAGAMOS EGIN. EGIN DEZAGUN EGIN.



IKASTOLAK EGIAZKO HERRI ESKOLAK IZAN DAITEZEN

AURKIBIDEA

3. Editoriala
- 4-5. Amara Berriko txiki-zidioak
- 6-7. Iparraldea
- 8-9. Herria -2000- Eliza
10. Mila Kondu
11. Ohar laburrak
12. Tolosako Azidoa
- 13-14. Elkar Ikuska / Etor-kizunarekin hizketan
- 16-17. Estadua
18. Israelgo oihu berriak (INT)
19. Sukalderako Saltsak
- 20-21. Benjamin Disraeli (ipuina)
- 22-23. Munduko hiri nagusiak (hirigintza)
- 24-27. Venezia hiltzen ari da (Erreportaia)
- 28-30. Pedagogia
31. Musika
- 32-34. Kirolak
35. Gramatika
38. Gurutzegramak

Leg. Gor.: BI, 1763-1967

OHARKIZUNA

Anaitasuna ez da arduratuko artikuluen edukiek duketen erantzunkizunaz. Beronek ez du esan nahi ez alde ez aurka degoenik. Bestaldetik, beregain hartuko du editorialearen eta bere izenez izenpetutako artikuluen erantzunkizuna, berau baita (hola dugu ulertzen) bere ideologi hildoak.

Sortu zirenetik, ikastolek bide neketsu eta oztopoz betea urratu behar ukan dute gaurko egoera iristeko. Kontraesanak berak herriaren baitan baitzeuden; eztabaida eta modu askotako burruken artetik eginiko bide luzea. Egin diren lanen fruituak begi bistan ditugu, hortxe daude etorkizun hobe eta uskaldun batetarako eduki dezakegun esperantza nagusia; Hortxe daude testugintza eta pedagogi arloetan burutu diren lanak; hortxe daude, kemenez eta problemez beteak Euskal Herriko Ikastolen lau Elkar-teak. Ikastolak aurrera doaz eta berak dira, gure haurrak pertsona eta euskaldun bezala osatuko dituen biharko herri irakaskuntzaren oinharri finkoak.

Bokazio publikoz jaio ziren ikastolek, egiazko herri eskolak izan nahi dute, Euskal Herriko haur guztientzat zabalak. Horretarako dohainikoak izatea lortu behar dugu. Oraingoz gastu gehienak gurasoek bete behar ohi dituzte. Ikastoletan semea heztea, 3.000 pza. batz beste kostatzen zaie hilero gurasoei. Kantitate handiegia, beraz. Eta ba dakigu nortzuri dagokien ikastolak finantziatzeko obligazioa: gure zergen diruaz erdal eskolak inposatu dizkigutenak, euskararen kontra saiatu eta saiaturen direnak, gure ikastolei esker horrenbeste diru aurreztu dutenak, berak dira pagatu behar dutenak. Subentzio ofizialak bidezko eta ezinbestekoak zaizkigu aurrera egiteko. 1977.ean Estatuarengandik ikastolek jaso zuten laguntza, ez zen 300.000.000 pezetetatik gora pasatu, hots, ikastolen gastuen o/o 20a soilki. Aurren, Urtarrilean Hezkuntza ministrariarekin mintzatu ondoren, aski baikor iritsi zitzaizkigun Madriletik. Akordio batzua lortuak zituzten. Garrantzizkoena: Estatuak 1.068.000.000 pezetatoko laguntza emanen zien ikastoleei. Honen bidez, gastuak anitz guttituko lirateke, o/o 70 batetan edo, eta gaurregun 3.000 pezeta hilero ordaintzen duten gurasoek, ez lukete 800 pezeta baizik pagatu behar. Ikastolen dohaintasuna erdiesteko urrats inportatea, bera.

Baina hitzak dira eta Madrileko gobernariaren merkeak gehiengant guretzat. Orain, Suarez lehendakariaren beraren erabakiz, laguntza hori geldiarazi egin dute eta dirua ez da Euskal Herrira ailegatuko. Beste kolpe gogor bat ikastolen ekonomia ahularentzat, beste azpijoko bat Euskal Herri osoaren nortasunarentzat. Hori dateke historian zehar Espainiak gure herriari azaltzen dion maitasuna, zoritxarrez, espainolak eta frantsesak izatearen ondorioak. Bitartean, ikastoletarik makalenak, Nafarroakoak bereziki, beren ateak hertsu beharrean aurkituko dira, diru laguntza heltzen ez bazaie.

Bitartean, ikastolak ez dira geldirik geratuko eraso berri honen aurrean, eta burruka jarrerak hartzeko prest daudela adierazi diote argi Suarez jaunari, lau Ikastola Elkar-teek zuzendu dioten gutun baten bidez. Euskal Herria ez baita edonola erabil daitekeen ardi mantso hura. Apirilaren azkenerako diru hori iristen ez baldin bada kanpaina bat eratuko da Udaletxeen eta Euskal Kontseilu Nagusiaren laguntza lortzeko, eta Maiatzaren erdirako Madriletik oraindik erantzunik etorriko ez balitz, orduan herri mobilizazioetara joko litzateke. Zeren, argi baitago batzuk indarraren hizkuntza baizik ez dutela konprenitu nahi.

AMARA BERRIKO TXIKIZIOA

(jarraipena)

Amarako hirigintzaren egoera nahiko larria da gaurregun. Lehenik hauzategiko urbanizaketa dela eta arazo berriak plazaratu dira. Coninsa urbanizagileak erdi geratua aurkitzen da, obren plangintza oso atzeratuz doa, eta beraz, garestiagotzen. Tartean 400.000.000 pezeta dabilta jokoan.

Eta arazo honi loturik kontribuzio berezien borroka luzea aurkitzen da. Arazo biak bata besteari lotuak daude eta bata bestea konpondu behar duelako, Hauzo Elkarteak ere negoziaketara jo du. Ez ordea, hauzo borroka eta hauzo asanbladari uko eginaz, lehengo hauzo batzar batean udalarekin negoziaketarako asanbladaren erabakia jaso ondoren baizik.

Udalekoek ere ikusi dute azkenik hauzategiaren kontra ihardutearekin ez dutela deus lortuko, eta hauzo elkartearekin harremanetan jarri dira. Hauzo elkarteak haseratik eskatu zuen kontribuzio berezien gakoa askatzeko udalarekin elkarrizketa, baina udalaren erantzuna hauzitara jotzea izan zen. Paper gehiegi eramanez liguke administralgo ta kontentzios hauziak arakatzek. Hauzotarrek ba genekien giza arrazoi osoaren jabe ginela eta urbanizaketa ezaren erantzukizuna udalari eta etxegileei zegokiela bakarrik. Hala ta guztiz ere, hauzo elkarteak aski mugitu behar genuen kontentzios hauzia legez (eta diruz) inpugnatu ahal izateko. Adibidez, hirurehun mila pezeta kostatu zitzaigun Irune-ko Kontentzios epaigintza, eta handik Goreneko Tribunalera altxatu ahal izateko, berriz, milioiak behar, eta etsi beharrez aurkitu ginen. Ahaleginak egin genituen legebidez jokatzeko ere, baina, legea, dagoeneko, dirudunentzat dago egina soilki sistema kapitalista honetan, eta hauzotarrek legebidea utzi behar izan genuen. Hortik hauzotarrentzat o/o 60

eta udalaren kontura o/o 40 sententzia finkatua geratzea.

Udalak gainditu ditu o/o 40 horik, eta 160.000.000 pezeta aurreratuak ditu 22 obretako zertifikapenetan. Hauzategiari 211.000.000 pezeta badagozkigu ere, lehenengo epeko errezibu zerrenda 5.000 kontribuziogileetarik gehiengo batek atzera itzuli du, udala exekutibora iragaten ausartu gabe. Beste errezibu zerrendak bidaltzeko prest dago udala, eta puntu honetan aurkitzen gara negoziaketa hasi orduan.

UDALEKO BILERAK ETA AMARAKO BATZOKIAREN OPORTUNISMOA'

Frankismoan eraturako udalak gero eta hutsagoak eta eskasagoak izaki eta lehen aldiz udal hauteskunde demokratikoak bistan direlarik (UCD bere komenientzian ari baita hauteskunde hauek atzeratzen) Donostiako udala ere hiriaren mesfidantzaz eta erabaki sendorik hartzeko gauza ez dela aurkitzen da.

Amara Berriko Hauzo elkarteak udaletxean behin eta berriro hitz eder eta antzuak franko jaso baditu, udalekoek gorrarena egiten ez zutenean, hauzo elkartearen proposamendu eta galdetzeak bazterreratu dituztelako da.

Udal hauteskundeen usainean, ordea, Amarako Batzoki jaio berria udalarekin harremanetan jartzen da. Beraz, azken denboraldi honetan bi erkunde hauek abiapuntu eta jokabide desberdinetarik dihardute. Hauzo Elkarteak urteak daramatza hauzategiaren alde lanean eta bere herrikoi interesak defendatzen. Hain zuzen ere, hauzo lan eta etengabeko ikasketan, dossier sakonak bilduak ditu bai Amarako hirigintzaren historiari buruz bai kontribuzio bereziei buruz. Amarako Batzokia, berriz, atzo jaio da, eta udal hauteskundeen usainean lasterkada bizian gertatu da. Eta udalarekiko bileretan ez obserbatzaile bezala, udalaren eta hauzategiaren arteko bitartekotzat aurkeztu da gehiengo omen den jeltzale alderdia. Hildo horretatik Amarako Batzokia berehala ausartu da hauzo elkarte kritikatza ere, udalari esku bat luzatu nahirik.

Beraz, azkenaldi honetan bi bitarteko agertzen dira udalaren aurrean, Hauzo Elkarte ta Amarako Batzokia. Batzokiaren oportunitate hau dela eta, hauzo elkarteak dei eginik, hauzategiaren hauzo elkarte bidez langintzan ari diren alderdiak eta PNV-ko batzokia, bitartekotasun honetaz mintzatzeko elkartu ginen. Lehen aipaturiko arrazoiengatik HASI, LAIA, ESB-ANV, EIA, EMK, LKI eta PSOEn ordezkariek bat batean Hauzo Elkarte aitortu zuten hauzategiaren eta udalaren arteko bitarteko bakarria bezala, PNVren jokabidea lekutik kanpo bezala aipatuz. Batzokiak, ordea, berak ere bitarteko bezala jarraituko zela agertu zuen. Udalak, berriz, nola gaitzets ezakeen PNV baten bitartekotasuna ta laguntza?

Garbi dagoena zera da, Hauzo Elkarteak (aipaturiko ezker alderdiak bezala) hauzategiko interesak defendatzen dituela, baina, PNVk noren interesak defendatzen ditu? Dena dela, ez gaitu deus harritu PNVren azken orduko ernealdi honek, beti ere gaizki ikusi baitute hauzo elkarte, interes partikularren gaitetik hauzategiko interesak defendatzea arriskugarria zen norbaitzuentzat, noski! Area-

go, PNVkoei ez zaie oraindik muturrik ikusi ez hauzategiko arazoak planteiatzerakoan ez euskarazko gau eskola ezin antolaturik ibili garenean.

Halere, udalaren eta hauzo elkartearen artean negoziaketa sakon bati hasera ematen bazaio, agian, Amarako Batzokiari esker joko oportunistaren gerta daiteke, hauzategiaren eta Donostiaren onerako.

MARTXOAK ZORTZIKO BILERA

Martxoak 8, udaleko urbanizaketa, Hazienda ta Ingeniari buruzagiekin batean bildu ginen Hauzo Elkartea, Amarako Batzokia eta HASI, EIA ta EMKen ordezkariak (baita azken bileretara obserbatzaile bezala agertu den PCko ordezkaria ere.) Batzokiko Azurza jaunaren fantasmagoria eta hauzo elkarteari zuzendutako eraso batzu gorabehera, batzar luzea baina probetxugarria gertatu zen.

Lehenik, obrak bukatu ahal izateko plangintza berritu eta ahalik eta lasterren zehaztu beharraz aritu ginen. Baina, Coninsaren zilegitasunaz eta ahaltsunaz sortu diren dudamudak aztertu genituen, zeren, jota aurkitzen bada, obrak bukatu ezinik Amarako kaleak tripaz gora geratuko bailirateke. Denbora gehiagorik alferrik ez galtzeko, beraz, Coninsaren ekonomi egoera ikertzea gomendatu zen (gero eta suminatzaile gehiagok moztu baitute berarekin, honek ez ordaintzean), dagoeneko egoera horren arabera beharko baitira izan udalaren lehen pausoak. Halegia, dirubiderik badu gogorrago galdutako zaio obretarako plangintza, erdi jota badago, berriz, beste era errealistago batez tratatu beharko zaio, erremedioa gaitza baino okerrago gerta ez dadin.

Kontribuzio bereziei buruz, berriz, prentsak airatu zuen bezala airatu delako "negoziaketa" eta azkeneko unerarte ez genion hagina tinkatu. Udalak legez ezin omen du hauzotarrei dagokigun o/o 60 hori inola ere jaitserazi legearen zigorpean eri gabe, gainera ez omen du mediorik ere (Ez kredit ofizialik, ez fiskalbiderik) Donostiako PNV ere ba zirela aipatuz, udalekoak bezala Donostiako ondasunak. Amaran gastatzea ez dela bide birbaiezta- tu zuten.

Hauzo Elkarreak Amarako Lapurketak, eta udalak berak atera duen espekulapena ta erantzukizuna gogoratuz negoziaketa jator bat galdatu zuen. Eta mahaiari negoziatzen zena berriz, hauzategiko batzarrean erabakiko zela azkenik.

PNVko Azurza jaunak hauzo elkartearen asanbladak oso mugatuak bezala joz, hauzo elkarreak jendea ez ordaintzera xaxatzen zuela salhatu zuen, eta halatsuko erabakiak izan ohi zirela kontribuzioak ez ordaintzeko erabakiak. Ez ordaintzeko jarraita ez baina, hauzo elkarreak datozen errezibu zerrendak ordaintzeko proposatu behar zukeela aipatu zuen, udalarekiko negoziaketaren ondorioak gerorako utzirik.

Azurzak zuzendutako salhaketaren faltsukeria adierazi ondoren (hauzo elkartea beti negoziatu nahiz ibili baita elkarrizketa eta negoziaketak moztea udalaren aldekoa bakarrik izaki), hauzo elkartearen eta (PNV ez beste) alderdietako ordezkarien aldetik negoziaketa bat lortu arte udalaren errezibu zerrendak ordaintzeko proposatzea desegokitzen jozen.

Ia eguerdian eta mahaitik altxatzen ari ginela, Estanislao Etxeberría jaunak, negoziaketarako ziritu edo posibiliterik ba zegokeela aipatuz, hauzo elkartetik proposamen zehatzik aurreratzen ahal genuela eman zuen aditzera, apustuetan bezala tratu honi nolabait ere hasera bat emateko.

Dena dela, udalekoak negoziaketa edo portzentaia gaitasun hau ikastekotan geratu ziren, benetako negoziaketa batean ekiteko. Denbora denborari.

ALEX

ALDERDIAK
AURKA

AUTORGANIZAKETAREN

Geroz eta jende gehiago dago Euskal Herrian alderdiekin nazkatutik eta potroetaraino eginda. Euskal Herria organizagotzen eta indartzen ez ezik, beheraka doala dirudi, herri mobilizapenak urriagoak dira, langileria zatikaturik aurkitzen da eta asanblada mugimendua erdi-jota dago. Gainbehera honetan alderdiek eta hauen sindikatuek dute noski errua neurri handi batean autoorganizaketa- ren alde daudenak maiz alderdikeriaz eta herri mobilizapenak kapitalizatzearen soilik iharduten baitute, eta burjes erakundeak herri autoorganizaketa hau nola itoko irrikitzen dabilzalarik.

Halere, gehiegizkoa deritzot autoorganizaketa hori lurjotzen ari delako erizpideari. Mendebaldean herri kontzientzia eta autoorganizaketa, bere ahuleria eta guzti, beste lurraldeetan baino sendoagoa da. Eta mendebalde barnean gaur egun Herriko autoorganizatuena eta mobilizatuena Euskal Herria da, noski. Ez dago ikastola mugimendua, edo amnistia aldeko mobilizapenak, edo ETaren herriko burruka harmatua,...eta gaur bertan nuklear zentraleen aurkako herri borroka orokorra.

Autoorganizaketa honek ordea, bere gorabeherak izan behar nahi eta ez, autoorganizaketa hau zenbait baldintzapean loturik aurkitzen baita. Halegia, Herria, borroka gordin eta luze baten ondoren itxurazko amnistia bat lortzean, besterik gabe, mementuz behintzat laxatu egingen da. Herriak, eta herriaren buru behar duen langileriak gure gizartearen burjes egitura eta joskera osoa eten edo aldatuz Herriaren eskuetara itzuli behar du. Autoorganizaketa orokor hori, ordea, oraindik ume xamurra besterik ez da, heldu gabea, etsaia boteretsua eta kontrolaezina baita. Hortik estrategia bat muntatu beharra, hortik klaseen kontraesanak nabarmendu beharra, eta hau guztiau gaur gaurkoz alderdi iruultzaile batek bakarrik bultzatu dezake.

Marxismoak erakusten digunez gizartearen azken helburua Herriaren autoorganizaketa orokorra da, eta hortarako bai alderdi eta bai beste erakundeak desegin eta deuseztatu egingen dira gizarte erresponsible eta heldu bati lekua egin, eta, bere kasa goberna dadin, hori baita azkeneko helburu komunista. Baina, bitarte hori betetzeko alderdiari heldu beharra dago. Herria, beraz, ez baita burjes egitura eta bere euskarri den Estatua hautsi eta aldatuz erabat autoorganizatzen gauza.

Hortik Estatuak gorputzen duen burjes zuzendaritza hautsi eta aldatzeko alderdi iruultzaile, eta erakunde aldatzaile eta eraginkor baten beharra.

Lehengo batean Donostiako anarko iruultzaile batek ez zidan ez gobernurik, ez alderdirik, ez udalik, eta ez deus erakunde konbentzionalik ametitzen autoorganizaketa hutsez jokatu behar omen dugu. Oso polita zela hori baina daukagun etsai organizatuaren aurrean horrelako jarrerari

TESTIMONIAL hutsa neritzola aipatu nio

Alex



iparraldea

EKOLOGIA IPARRALDEAN GUZIETAKO EKOLOGIA

Hegoaldean ekologiaren arazo ba dago: kearen, uraren, bizimodu osoaren zikintzea, zentrale nuklear eta ab. Baina ba dago ere ekologiaren arazo bat Iparraldean. Hain zuzen, inork ez bazuen uste izanen ere, gure baserri berdeak eta nekazari ozenak topatzen dut gaur, ekologiaren arazoa. Lurrean, janarian, nekazaritzaren eramateko moldean bistan da, horietan guzietan murgiltzen garela biziaren zentzuan edo sentigoaren zehar. Nekazaritza zertarako? Produktio nasaikeria zertarako? Behar faltsuak edo behar ezbeharrak zertarako? Galdera hauen erantzunean dago, gure ustez, Euskal Herri guziaren itxaropena edo galbidea. Ez gaitzezen ilusi eta bildurrik gabe burruka ditzagun ezeztatu nahi gaituzten gaitz guziak. Horretarako beharrezkoa da, Iparraldeko labo-



Lehengoen bizi-sanotasuna. Zer irakaspem ematen ean, gaurkooi?

rantzaren arropentsatzea, lanbideen sortzea ekologiaren helburuei begiratu. Aztertuko dugu beraz geure ekonomia giroa eta ekonomia honen oker absolutuak, ezen oker absolutuetan baikabiltza, teknikalarien okertasuna, teknikaren okertasuna, heziketa osoaren okertasuna.


Nekazaritzaren kondenzazioa?

Ba dakigu Iparraldearen nekazaritza oso ttipia, lur eremu ttipiegia dituela. Gaur mendialdean, Behenafarroa eta Zuberoa, 12 edo 10 hektarea hein hori egiten digute etxalde bakoitzaren eremuak. Hazparne, Donapauale, Lapurdin etxalde handiagoak ba dira: 30 eta 25 hektareatakoak. Baina izan daitezten 12koak edo 25ekoak beti eremu ttipitako etxaldekak dira. 12 hektareatako nekazaria nekez bizi da eta nekez bizi ere 25 edo 30 hektareatakoa. Hain zuzen, Merkatu Komuneko agintariek erabaki duté etxalde ttipienak 40 hektarea beharko dituela eta diru laguntza guztiek erakusten digute 40 hektarea dituen lagundua izanen dela 10 hektarea besterik dituen baina gehiago. Beraz Merkatu Komunak bere aukera egin du, errendamenduaren kriterioa: 40 hektarea. Bizkitartean Iparraldean bezain etxalde ttipiak topatzen dira beste nazioetan ere: Alemanian 10 eta 15 hektareatakoak. (Baina hau industri nazio bat dugu), Ingalaterran 50 eta 56 hektareatakoak. Dakusagu bera, laborantzak bizi nahi badu handi behar duela eta industriagintza



Nekazariak arbasoengandik ikasi dute naturarekin eskontzen eta beren independentziaren begiratzan.

USKAL HERRIA



NORK ERABAKIKO DIGU GEURE URKATZE KOLEKTIBOA? (Larçac-en).

Zentrale nuklearren aurka.

ren kriteriotan sartu: Produktzioa, konpetizioa eta errendamendua.

Gaur, 40 hektarea aukeratu dute, bihar zenbat?. Gizarte kapitalisten helburua, kapitalaren logika. Kapitalaren lege hotza: kapitalak kapitalaren bidez handitu eta azkartu egin behar duela. Ikus dezakegu zerk gaituen kondentatzen: Kapitalisten Europak, Kapitalaren kolonialismoak, zabaltasunak eta mundu osoan barne duen zerikusiak.

Nazioak hil dira, presidentak hil dira, independentziak hil dira eta politikak berak kapitalak agintzen ditu. Honetan nabaritzen zaigu laborantzarik eta industriagintzarik ez daitekeela asma, ez eta aurrera eraman, fronterra guztien kontrole azkar, indartsu bat gabe. Nazio ttipiek, nazio handietatik beren burua defendatu egin behar dute. Kapitalaren internazional kontrol gogor batek baizik ez digu segurtatuko politika bakoitzaren independentzia, edo bestela autarkia sakon batek baizik. Zeinen zai egon behar dugu: kontrol internazionalaren edo gure Euskadi egin, nahi dugun bezala eta gure absolutuekin?... Ezen, kapitalarekin daramagun zeingehiago honetan gaitzailleak gara kapital ttipikoak garelako baina sekula ez kapitalik gabeak. Euskal Herria osoki pobrea dela ez da egia, ba dira 11, munduan zehar ez da pobreakoak direnak. Aberats garelako ez da ere egia, zer gara U.S.A. ren kapitalari gonbaratuz?. Egia esan ez gara kapitalaren aberastasunean gainetarik baina kapital guztiak diruzkoak al dira?. Aberastasun guztiak diruzkoak al dira?. Eta azkenez, kapital guztien artean handiena ez al da bizitza, bizitzaren sanotasuna, kreaizioa eta gizona?.

Absolutu hauk oso sakonak ditugu eta hain zuzen absolutu direlako teknika guzia hauei subordinatu egin beharko dugu. Baldintza honekin bakarrik, nekazaritza ttipia kapital bat bihurtzen zaigu, osasuna eta kreaizioa osatzen dituen. Berdin, baldintza honekin bakarrik, Euskal Herria bere ttipitasunean kapital haundikoa bihurtzen zaigu, euskararen heldutasuna, artzainen izaitea, langile guztien autogestioa, Euskadiren askatasuna, gizonaren premiasuna osatzen diskiguna. Ez gara beraz, hainbat kapitalerik gabeak, baina bai kapital behar beharrenez aberats eta guztiz aberats. Hauk denak izanen dira biharko gizartearen aberastasunik haundienak. Arren esan dezakegu ez garelako Herri bat galdua eta etsitua, baizik eta gara itxaropenezko Herria, etorkizunaren Herria. Honen eta horregatik ikusten ahal dugu Iparraldeko nekazaritzaren garrantzitasuna. Euskadi Batua erantzat, honen sendotasunarentzat, honen kapitalarentzat.

Kapitala badugu: nork beretuko du?

Kapital beharrezko honi nortzu dira ohartzen ari? Jende asko baina batipat kapitalistak berak. Langileak ere ikusten du kapital berri honen garrantzitasuna, beretzat eta bere haurrentzat baina dirurik ez duelako berriz ere izorratu gelditzen da. Hain zuzen, gaur, aire sanoa, janari sanoa eta baserria bera merkatu gauza bilakatu direlako. Iparraldea kondizio honetan dabil, eta jadanik kapitalistak hemen dabilta merkatu berri honetaz zerbait profitu egin beharrean. Horrela bereuek-asmatu plangintza gure baserrietan

obratzen dute: Iholdin (Behenafarroa) ur putzu bat, Senperen beste bat, Iratin beste bat, Garazin beste bat (?). Gainera, artzainak kasatu eta haizatu nahi dituzte, mendiak buldozerraz urratzen, Iparraldea husten; Honela espazioa eta ingurumena libratu ondoren turismoaren teknikalariak hiriko langileak amesten duten Euskal Herri berri bat eratu nahi lukete

Batipat, turismoaren merkatuari doakiona. Langile gaiztoa lanean nerkaturik etortzen zaigu, 11 hilabete luzez lantegi-presondegian pasaturik. Esan ezik, liberazio bat dela honentzat eta gainera baserrietarrez bekaizti bezala dabila, batipat berak galdu duen bizimoldea, lanaren kreaizioa gizon xume honek inkarnatzen duelako.

Baina egia ahal da oraino argazki faltsu hau? Goraxeago agertu dut ez dela egia eta esan nezake gainera nekazaria bera hiriko langilearen lan baldintza berdinetan topatzen dugula. Inbestizioetan eta diru zorretan sartu delako banketxeen langile bezala bihurtu zaigu. Horretan bertan bere independentzia bera galdu egin du, eta askotan banketxe hauen teknikalariak die agintzen. Amaitu dira askatasuna eta jabetasuna, lanaren sentidua bera, ezen bere lehen eginbeharra ez du gehiago berea baina berea ez duen bankuarena. Logika honek eraman digu gizona produkziolari izatera produkzioarentzat, eta ez gehiago bere familiarentzat edo benetako beharrentzat. Esan genezake teknikaren materialismoak hil egin duela gizona: hona gure industri gizartearen eta zibilizazioaren erru ezin barkatua. Gizona ez da tresna bat, gizona ez du tresnaren morroi izaterik baina bai gizona lehen eta tresna bigarren. Tresna gizonaren zerbitzurako, ezseta aldrebes. Bertako nekazariak ez digute oraino borroka hau ikusten eta aztertzen, batipat senditzen fatalismo bat bezala. "Produktzioan gaituk eta produktiotik ezin eskapa, kateak ezin trenka, teknikalariaren logikak garamatza". Teknikak libertatea hil egin ahal du gehiago eman behar eta? Hots, teknikaren eta askatasunaren hauzian gabiltza, hauzi beharrezkoa, larria, itxaropenaren giltza edo kondenua. Dena dela, orain nabari da ekologia, ekologia baino gehiago dela, gizonaren arazoak gaintzen, elkartzen dizkigula eta benetako galde hau egiten: gizarte bat zertarako?. Askatasuna, kreaizioa, heziketa, lana, maitasuna, teknika, gizonarentzat LEHENIK GIZONA GIZON EGIN DADIN.

HERRIA 2000 ELIZA

Ez da formula milenaristaren bat.

Elizaren historian behin eta berriro sortu izan da "milenarismo" deituriko mugimendurik: era batetara edo bestetara. Funtsean uste hauze adierazten du milenarismoak: Azken egunaren aurretik -"egun handiaren" aurretik, esango lukete gure aitonek-, mila urtez Kristoren Erreinu miragarria agertu eta finkatuko litzateke munduan.

Aldizkari berri baten eta "Eliz aukera" berri baten izena da:

HERRIA-2000-ELIZA! Martxoaren 31an Euskal Diozesetako Apaizen Pastoral Ekintzaren Bateratzea deituriko mugimenduak bere VII. Batzarrea egin zuen Azpeitiako Loiolan. Eta bertan aurkeztu ziren bai aldizkaria eta bai Eliz aukera berriaren aurreprojektua.

Euskal Diozesetako Apaizen Pastoral Ekintzaren Bateratzea

Frankismoaren azken urteetan, eta Euskal Herriak jasaten zuen errepresioaren indartzearekin batera, euskal apaizek gero eta premiazkoagoa nabari zuten, zapalkuntzaren kontra elkarrekin jokatu eta burrunkatu beharra. Baina gehienetan gertakari konkreturen baten aurrean bakarrik elkartzen ziren, agiriren bat ateratzeko edo protesta konkreturen bat egiteko. Franco hil ondoren apaizon ekintza bateratuaren premia amnistiaren inguruan konkretatzen da batez ere: 1975.eko Eguerriak inguruan 1.069 apaiz euskaldunek agiri bat eman zuten, amnistia osoa eskatuz.

Berriro ere, 1976.ko martxoan Gasteizen gertaturiko langileen hilketaren ondoren, 1.055 apaizek agiri gogor bat eman zuten, basakeria hura salatuz. Eta hain zuzen ere, agiri hau prestatzeko egun haietan Gasteizen egin zen bilera batetan erabaki zen Euskal Apaizen baterakuntza iraunkor eta etengabea eratzea. Horretarako proiektu bat landu zen, eta hurrengo ekainaren 8an Iruinean ospatu zen 130 apaizen arteko bilera batetan sortu zen azkenik "Euskal Diozesetako Apaizen Pastoral Ekintzaren Bateratzea".

Izena aldrebesa du eta ia erabili ezina. Orain egitura berri bat eman nahi zaio erakundeari. Bere izena ere aldatu eta erraztu egin beharko lukeela uste dut.

"El clero vasco" izeneko mugimendu ezagun bezain ohoragarriaren nolabaiteko jarraipen bezala agertzen da euskal apaizen erakunde berri hau. Hala ere ezin dira berdindu, ez ideologia aldetik ez eta Eliza "ofizialari" buruzko jokabideari dagokionez.

Hiru oinharri ideologiko hauen inguruan biltzen dira apaizok:

a) Eliza: Ebangelioari leiala, agintunengandik librea, profetikoa, askatzailea eta demokratikoa;

b) Gizartea: Klasismo-kapitalismoaren gainditzaila, ekonomi, politik eta kultur aldetik demokratikoa, eta gizonen eta gizataldeen hustirapena eta zapalkuntza baztertuko dituena;

c) Euskal Herria: edozelako zapalkuntza modutik askatua, eta bere nortasun politiko, kulturazko, etniko eta historikoa burutuko duena.

Antolaketari dagokionez, Batzarre orokorrak izan ditu oinharri Erakundeak.



Eliza ofiziala eta euskal Apaizen mugimendua bi gauza ezberdinak dira. Agintari hauk ebangelioari loturik al daude?

Apaizak eta oinharriko kristaur Elkarteak

Euskal Eliza herritar baten bila dabiliztan bi mugimendu nabarmentzen dira azken urteotan Euskal Herrian: Oinharriko kristau Elkarteak eta bereziki "kristau elkarte herritarrak" direlakoak, batetik, eta aipaturiko euskal apaizen erakundea, bestetik.

Apaizen erakundea sortu zenetik bertatik nabarmendu izan da kezka bat: Apaizen erakunde itxi bat ez egitearena, hain zuzen ere. Edozein klerikalismo mota eta klase klerikalaren kutsua gainditu nahi dira, Eliza herritarraren bila.

Hala ere, uste dudanez, Apaizen erakundeak ez du haseratik daraman anbiguotasuna gainditu: horietako asko gehienak Elizainstituzio ofizial eta tradizionalari loturik daude, parroketan batez ere. Nahiz eta horren aldatu eta gainditu beharraz etsita egon, hala ere ez dute etenik sortu nahi izan. Behin eta berriro aipatu eta erabaki dute, oinharriko kristau elkarte ugari eta indartu beharra, Eliza herritarren aukera berrirako bide bezala, baina Eliz egitura pastoral tradizionalak indar handiagoa dute oraindik.

Apaizen erakundea bera ere apaizena bakarrik da oraingoan, nahiz eta behin eta berriro agertu izan Erakunde zabalago bat kristau laikoei irekia egin beharrenean kezka. Ez da oraindik horretarako erabakirik hartu ahal izan, eta Eliz aukera berria bultzatzekoan apaizek oraindik egiteko espezifikoak dutela pentsatu izan da.

Alderantziz, zenbait apaiz kristau Elkarteetan integraturik dabil, eta horien eta Erakundearen arteko lotura organikoak eskatzen ditu. Honelakorik ez da lotu oraindik; horien arteko harremanak, elkarrekin batzarrenen bat edo beste egitean eta elkarrekin agiriren bat edo beste izenpetzean agortu dira.

Dena dela, bi mugimenduen arteko kideatasuna eta dialektika eta guzti, apaizen erakundearen anbiguotasunak hortxe dira.

Proiektu bat, liburu bat, aldizkari bat.

Martxoaren 31ko Loiolako batzarraren hiru gauza aurkeztu ziren, hirurak bide beretik eta helburu berbera doazena: Euskal Herrian Eliza herritar bat bideratzera.

Proiektua: "HERRIA-2000-ELIZA" izeneko Eliz aukera.

Orain arte euskal apaizen Erakunde hau baterakuntz zerbitzu bezala ulertu da eta egitura oso simplea izan du. Urtean lau aldiz bildu izan den Batzarre orokorra eta herrialdeko osaturiko Batzarde bateratzaile iraunkorra: bi ardatz hauen gainean funtzionatu izan du Erakundeak. Iparraldeko apaizak ez dira oraindik Erakundearen integratu, baina bai Batzarrean eta bai Batzordean beti hartzen du parte hango apaizen batek.

Orain Loiolan ospatu den Batza-



Eliza askatzaile eta demokratiko bat. Horretaz saiatzen da "Herria-2000-Eliza" aldizkaria.

rraren ondoren, eraikuntz garai berri bat hasi da Erakundearentzat: oinharri ideologikoak argitu eta zehaztu, eta antolaketak berritu, indartu eta finkatu, eraginkorragoa izan dadin. Hala ere, beti batzarrea izango da antolaketaren oinharria.

Bai ideologiazko eta bai antolaketazko oinharriak "Euskal Eliz aukera berri" baten inguruan aztertzen dira. Funtsean Iruineako lehen Batzarrean jarritako puntuek definitzen dute Eliz aukera hori. Orain, ordea, izen bat eman zaio aukera berriari: HERRIA-2000-ELIZA. Liburuak: "Herria-Eliza EUSKADI Pueblo-Iglesia".

Apaizen Erakundeak behin baino gehiagotan antolatu izan ditu astealdiak eta ikastaldiak, bereziki apaizentzat berarentzat. Liburu honetan, lehen astealdian (1976ko irailean) erabilitako gaiak biltzen dira. 505 horrialdeko liburu mardula. Erdaraz emandako hitzaldiak erdaraz bildu dira bakarrik; euskaraz emanak berriz, erdarazko laburpen edo itzulpen eta guzti. (Kontuan eduki behar da Apaizen erakundeak, ia haseratik, itzulgailu simultaneoak erabiltzen dituela bere batzarre orokorretan, erdaratik euskarara nahiz euskaratik erdarara itzultzeko).

Hamairu hitzaldik osatzen dute liburuaren gorputza. Euskal Herriaren eta Euskal Herriko Elizaren egoerak eta joerak aztertzen dituzte: Sozio-ekonomi aldetik, kultura aldetik, politika aldetik, fede aldetik etab.

Baina liburuak ba du sarrera irakurkari bat ere. Apaizen erakundearen

urte labur hauetako bizitzari buruz; eta batez ere 150 horrialdeko eraskin luzea auka, azken "berrogei" urteotan euskal Apaizek, bere herriaren aldeko borrokan, eman izan dituzten agiriak eta beste, eta bereziki Apaizen Erakunde bateratzaileak berak argitaratu dituen dokumentuak, biltzen dituenak. 21 dokumentu, denetara.

Liburuak bere erakarmen berezia duela uste dut. Eta ez kristauarentzat bakarrik.

Aldizkaria: "HERRIA-2000-ELIZA".

Bizkaiko kristau Elkarte oinharrikoek beren buletina atera izan dute azken bizpauru urteotan.

Baina aldi berean Euskal Elizarentzat Aldizkari zabalago baten premia aipatu izan da behin baino gehiagotan. Premia eta hutsune horixe betetzera dator aldizkari berri hau. Baina oraingoan Elizaren "ezkerralde"tik.

Nolabait Oinharriko Kristau Elkartearen buletinaren jarraipena da; baina bestetik gainditu egiten du hura. Harek zuen izpiritu berarekin dator, baina irakurleko zabalagoarentzat. 2000. urtean esperantza jarriarik, Euskal Eliza herritar baten bila dabiliztan guztientzako izan nahi du aldizkariak.

Euskal kristau "ezkerrekoen" ahotsa? Bereziki euskal kristau "oinharrikoena" izan beharko luke.

Hilerokoa da. Eta bizitza luzea eta bizia opa diogu. Esperantzarako!



MILA KONDU


"INKONTROLATU MAITEOK"

(eta politiko kontrolatuak)

Aberri eguna lasai aski ospatu genuelaren ustez geunden, baina besterik erakutsi arazi digute Madrilgo egunkariak, politikariak, eta abar. Erakutsi arazi egin behar Madrildik, bertan egon ginenok itsu bagina bezala.

Baina gauza kuriosoena da: Madrilgo komentaria politikoek berri agentzien bidez ikasi zituztela berriak, eta indirektoki ikasitako gaietan "ex-catedra" mintzatu.

Min egin baitzien Aberri Egunaren arrakastak. Izorra daitezten!



Inkontrolatu guztiak kontrolaturik omen daude baina nork kontrolatzen ditu kontrolatzen dituztenak?

Alderdiek erantzun zieten eta Consejo General Vasco delakoak ere bai. Eskuindarren joku bat zela salhatu zuten, eta autonomiak (zorioneko autonomia teorikoak) murrizteko eskandalo muntatu bat.

Bai hitz gogorak Gutierrez Melladorenak! Eta bai elizmutil funtzioaren ederra, Mujika Herzogena joan ziren... (Txano Gofritxoren ipuina).

Zorionez, Consejo General Vasco delakoak inkontrolatuak deskubritzeko balio du. Azken denboretan Donostian joka aritu ziren "inkontrolatuak" poliziarekin autoetan ezkutatu omen ziren batzuk.

Baina, O Jerusalem! O profetak! euskaldun bat bakarrik ere ez da harritu polizia "demokratikoren" eta inkontrolatuen arteko amorioak jakin dituenean.

Eta nola arraio konpreni daiteke hau! Jesus berriz ere itsuak argitara ekarri beharko dituzu, mirakuluen bidez edo antibiotikoen bidez.

Baina utz dezagun "inkontrolatuen" asuntua. Orain modan dagoen gaia PCEn dibergentziak dira, leninismoa eta demokrazia direla eta ez direla. Haranburu Altuna irten da EPKtik (PCEtik) eta kritika sendoak egin dizkio alderdiari.

Asturiasko militante garrantzitsu sail bat ez zegoen ados hango kongresuan eraman zen demokraziarekin, eta batez ere, kongreso aurretik eraman zen prozesuarekin. Berdin pasatu zen Katalunian PSUCekin. Dirudienez, PSUCeko delegatu batzuk dimititu egin omen dute. Presidenteak eta idazkari orokorrak ere bai.

Kontuok ez dira onak inorentzat, alde batetik. Baina, beste alde batetik, ezkertiar alderdien demokrazia beti analizatu behar dela erakusten digute.

Eta azkenik, Suarezek diskurtsu aspergarri bat eskaini zuen Kongresuan. Kongresu politiko asper-tuen biltokia dela baitirudi.

IOSU ALEZURI

HIZTEGIA.-

ustez — en la creencia. / dans la croyance
ospatu genuelaren — de que habíamos celebrado
d'avoit célébré

erakutsi arazi — hacer enseñar. / faire montrer
salhatu — denunciar. / dénoncer
harritu — extrañarse. / s'étonner
dirudienez — por lo que parece. / il paraît que,
d'après ce qu'il semble.

Amuriza

ALDAEZINEZKO JABEGOAREN AGENTZIA
AGENCIA DE PROPIEDAD INMOBILIARIA.
Fernandez del Campo, 37. Tfnoak: 432 27 45
BILBO - 10

General Mola, 26 Bolue 3 C Trav. Villamonte
Tf: 449 92 54 Tf: 460 01 62 - 460 01 66
BASAURI ALGORTA



Ezagunak dira Josep Tarradellas "ohoragarriak" euskaldunoi aspalditik eskaintzen dizkigun maitasunezko frogak. Azkena, Madrilera "El Imparcial" egunkariari gure herriari buruz egin dizkion deklarazioak izan dira; hauetan Euskal Herria Espainiaren kantzerra dela esan du Kataluniako aurreautonomiaren buruak.

Ba dakigu historian zehar asko izan direla horrelatsu pentsatu dutenak. Hain zuzen ere, Francoren Harmadako jenerala eta legioaren buru zen Millán Astrain famatuak, honoreblearen erizkidea da puntu honetaz, eta 1936.ean antzeko zerbait esan zuen: "Cataluña y Vascongadas son los cánceres de la nación". Kataluniaz hori esateaz ez da segurki konforme sentituko Tarradellas jauna, baina euskaldunoi dagokigunez guztiz bat dator.

Ez gara gu hemendik Tarradellasen esaldien originaltasuna dudatan jaritzen hasiko eta beharbada kointzidentzia hutsa dateke berau. Baina harrigarria da gerra urteetan bere kontrari amorratua zenaren eritziak hain erraz asimilatu dituela ikustea. Denborari bota beharko diogu errua, agian...



EGIN ETA EUSKARA

Anitz jendek komentatzen zuen penaz EGINen gero eta euskara gutiago agertzen zela, eta hau erraz egiazta zitekeen zerbait zen. Aski zen honetarako EGINen lehen zenbakiak eta azken sasoiotakoak eskuetan hartzea egunkaria sortzeko kanpainaldian - euskarari emanen omen zitzaion tratamendua gogoratuz gero, normala zen euskaldun askoren frustazioa.

Orain berrestrukturaketa orokorra egiten ari dira EGI barnean, eta honek zuzenki afektatuko omen dio gure hizkuntzaren arloari. Pozez esan dezakegu, eta agian hau berriketaren lehen fruituatarikoa dateke, azken egunotako EGletan euskararen portzentaia handitu egin dutela. Apirilaren 11 eta 12ko zenbakietan, esate baterako, euskarazko artikulak o/o 11 eta 12 dira. Nahiz eta hau oso gutti izan, ba dirudi behera zihuan euskararen kurba berrotzatzen hasiko dela. Hau gutiegi da, dudarik ez, egunkaria egiazki bi hizkuntzaduna dela esateko, honetarako o/o 40 euskaraz beharko litzateke guttienez, baina kontutan hartzeko aurrerapen edo errekuaperapen bat dela esan dezakegu.

INIGO DE AGIRRE ETA EUSKARAREN BALIOA

Euskararen balioari buruz aspaldion eritzi asko entzuten ari da bazterretan. Batzuentzat **euskarra gauzarik inportanteena** hutsa litzateke, horrela, dirudienez, betidanik gazte sentimentalak izan garenok memelotzat jarri nahirik.

Euskaldun guraso gizaixo batzuk, euskarak inolako baliorik ez duela koan, beren seme-alabei irakatsi ere ez diete egin. Arrazoi berberagatik askok ez du ikasi nahi. Zertarako? Diote halakoek.

Bilboko zenbait moldiztegitan, aldiz, euskaragan balio iturri pezetagarria dakusate eta gaztelania-espainiera ofiziala ez diren beste guztiak **"hizkuntza arrotz"tzat** jotzen dituen legeaz baliatuz, euskarazko lanak linotipiaz egiteagatik, **ehuneko berrogei** (o/o 40) garestiago kobratzen dute, hau da, frantses eta ingelesezko konposaketak baino karuago, euskara alemana bezain hizkuntza "zailen" mailan ezarriz. Eta euskaldunok, geurean **arrotz** ga-

relako, holako umiliazioetatik ere oraindik pasatu behar! Pobrearen lepoan abereasteko gai ugari aurkitzen dute batzuk beti.

Eta Iñigo de Agirre inefableak ere - ez otoi berau behialako Lope harekin nahas! - euskarari bere balioa eskaini nahi dioten horietakoa dela jakin berri dugu. Hobe ez, halajaina! Kultur arazoetarako parlamentaria izanik gaineral!

Modu aski bitxia darabil Iñigok horretarako hala ere. Lehengo batetan Eibarren, bertako kultur eta kirol elkarte batek hitzaldi bat eskatu zion gure gizonari. Berak baiezkua eman zuen, hargatik zenbat kenduko zion galdetzean, **lau mila pzta.** eskatuz. Honaiño ez dago, noski, zer esanik. Garestia ere ez zen eta. Hitzaldia euskaraz egin beharko zuela aipatu ziotenean, ordea, Iñigoren jarrera erabat aldatu zen, azkenean antolatzaileen ekinaren aurrean, **"A, euskaraz bada, orduan zortzi mila pzta."** esanez.

Eta oraindik batzuk euskarak ez duela baliorik esanien dute hortik zehar. Batzuren euskarak guttienez bai behintzat, eta erdararen doblea gai-

AZIDO ZIANHIDRIKOAREN AURREAN

—Martxoaren 28an goizean goiz Tolosan deskarrilatutako trenan ikustera hurbildu ginenok ez genuen uste bizitza honetara jaio berriak ginenik. Ikara ematen zuen merkantzi bagoiak elkargainka trabeska ikusteak. Ez genekien alderik alde tripaz gora lasai etzanda zegoen zisterna hura RENFEren historiara pasatzeko zenik. Ezta ere ez genekien zisterna horrek Tolosako herria historiatik kanpora uzteko arriskua zekarrenik.

—Geroago hasi zen tragedia eta komedia. Zer gerta zitekeen beste Madrilgo trenan puntuan etorri eta sabelaren erdian jo balu? Arriskua, susmo gaiztoa, izua, psikosis kolektibo apur bat, nerbioak... Denetik izango zen herrian. Askok ihesari eman zion. Inork ez zuen hemen inozo inozo azidoaren al mendra garratzen usainak harrapatzerik nahi.

—Bistan da; horrelakotan pizten da jendearen filosofi sena. Bizitzari eta gizonari buruzko kontsiderazio serio eta aspaldi zahartuak, berriak eta bixiak iruditzen zaizkio. Elizak hustuz doaz, baina S.Pedforen bizarrak errespetua sartzen du oraindik nonbait. Aztertzea litzateke askoren sentimendu eta pentsakera erlijiosoak ere. Probidentzialismo eta esker onezko otoitz eta meza (gotzain eta guzti) horien azpian dabilen Jainkoa zenbaitentzat ez ote den alkimista, edo gehienbat asko dakien bihotz oneko kimikalaria.

—Tolosako azido honen inguruan komentariarik franko egin da. Ekologia, teknika, ekonomia, segurtasuna, politika, deretxoa, informazioa eta beste zenbait ikuspuntutik mintzatu da. Ba dira beren soinekoak urratu dituztenak. Gaurko gure zibilizazioarekin txundituta, atzera betilun eta mesprezuz eta aurrera irripartsu eta harro begiratzen dutenak. Ni ez naiz eskan-

dalizatu. Humanismo progresistaren larrosa koloreko amets gozoak liluratu ez duenak ez dauka batere harritu beharrik.

—Azido zianhidrikoaren gertakizun zorigaitzoko honek ere gure zibilizazioaren anibalentzia argitara ateratzen du. Azido honen eta beste arriskuen kontra hartuta dauden baino neurri arrazionalagoak hartu beharko dira. Konforme. Baina ez dago ahantzerik; aurrerapenekin batera hazi ditugula arriskuak ere. Zenbat eta teknika eta

zientzia sofistikatuagoak zenbat eta manipulazio indar gehiago, orduan eta kaltetarako eta zorigaitzeko ahalmen bortitzagoa.

—Hori ez da gertatzen gizonak besteak izorratzeko, gerrarako adibidez, bere jakintza erabiltzen duenean. Normala da Hiroshimako bonbak Olafon wikingo jator eta amorratuaren ez-patazoak baino oker gehiago egitea. Hain normala ez dirudiena zera da: asmorik onenarekin asmatutako aurrerapenak gizonarentzat hain kaltegarri gertatzea. Dantzan jarri dituen indarrek ez diote obeditzen. Nagusitu egin zaizkio. Bizitzaren zerbitzutan asmatutako hainbat tresna, bizitza hori bizi ezina egiteko dira.

—Harrokeriak eta sasiprogresismoak baztertzeko orduak jo du. Sortzen duen guztiaren anibalentzia, bikoiztasuna, seriotan hartzeko hadinako disparitateak ikusi ditu dagoeneko. Egiten eta asmatzen duenaren kontrola derrigorrezkoa du. Bestela ere burua hondatu eta ukatuko du. Hemendik aurrera egiteko ahalmena izatea ez da nahiko egiten hasteko. Gogorra neutroi bonbaren polemika. Ondorioak ongi neurtu beharra dago. Azkenean helburuaren arazoa, helpideena, teknika eta zientziena baino garrantzizkoagoa da gizonarentzat.

M.Pagola



Sabino
Echevarria
Güenechea / Promociones

Carmen Kalea 11 - 6 esk.
Tlph. 673 06 19 - 748 - 729
Zornotza/Bizkaia


Zornotzako merkatal lokale eta 90 etxabiztaren eragintza eta salmenta.


EUSKAL HERRIA

ETORKIZUNAREKIN HIZKETAN

Euskal umeak eta komunikabideak

- Hortik ahotsa dator, hortik
- Horraino doa?
- Bai hortik sartzen da. Hemen ondak daude eta ez dira ikusten, kokuak ere oso tikiak dira eta ez dira ikusten. Ikusten al dira kokuak eh?
- Barrura sartzen dira antenaren bidez, hau antena duzu. Hortik sartu eta hemendik atera eta entzun egiten dugu.
- Eta kokuak nondik ateratzen dira? Kikirritik? Ni geixorik nago,... nago-enean eta gero bapo ez nago geixorik eta ...eta nondik ateratzen dira kokuak, ipurditik ala?
- Bai, kakatzen eta txisatzen ateratzen dira eta izerditan ere bai. Batzu. Denak ez; besteak gorputza barruan jil egiten





dira edo eta gorputza barruan dauzka-
gun soldatu ttiki ttiki modukoek hil e-
giten dituzte kokuak.

- Eta zelako soldaduak dira. Onak dira,
eh?... gudariak dira?

- Bai, ttiki ttikiak. Telebistako Maia,
erlearen antzeko baino ttikiagoak.

- Ba orduan ez dira euskaldunak.

- Zer ba?

- Telebista ez da euskalduna ...ta.

- Ala jan bitartean. Tintakatu ondo.

- ... Hau kaka modukoa da.

- Ez, ala! Jan hori, gibela duzu.

- Hau zezena da.

- Orduan telebista ikusi duzu gaur?

- Bai ... eta Xanen ipuina ikusi dut.

Xan eta makina hori esplotaten daue-
na, pum! eta gero badakizu zer egin

deutso makinari Xanek? Hartu egin

dau sare bat eta agarra dau hori eta bo-
ta deutso papera eta hartu egin dau sa-

rea eta gero eserita egon da makina ho-
rretan, ... esplotaten dauena, ta apurtu

egin da eta pilak kendu deutsoz eta...
Nola ikusi duzu telebista? euskaraz i-

kusi duzu?

- Bai, eta... eh! euskaraz eeezz!

- Nola ikusi duzu ba? erdaraz?

- Erdaraz!

- Eta zergatik ez dute eman euskaraz?

- Ba dena amaitzen denean emango d
dabe. Beitu,... "Kuanzinia" amaitu zen
ezta? ta Marco be bai

- Amaitu da?

- Bai, hori ez dabe orain ematen.

- Eta zer egin behar daba, euskaraz i-
pintzeko.

Ba, amaitu gauzak!

- Gauzak amaitu behar dira?... Eta
euskaraz ipiniko dute?

- Ez, Madrilen dagoz eta.

- Eta zer egingo dugu euskaraz ipin de-
zaten?

- Ama! jogurt bat nahi dut!... baina b
badakizu zer egin du Xanek? Ba maki-
ñean ipini da eta pilak kendu deutsoz

eta sareta eta guzti eta makiña apurtu
da eta papera bota deutso.

- Papera bota dio?

- Bai eta esplotatu egin dau.

- Lehertu da ez da?

- Bai hori, krak krak egin dau. Baina
erdaraz egin dau. Madrilen dagoz eta

beitu Madrileran joan behar dugu euska-
raz ipintzeko.

- Eta ez badute ipintzen?

- Ba, jongogu!

- Joan egingo gara?

- Baietz! eta jo egingo dugu

A! telebistakoak jo egingo ditugu?

- Lengoz euskuagaz eta gero ostikara
bategaz.

- Eta ez badute nahi ipini, ostikara e-
man eta gero?

- Ba badakizu zer egingo degun?. Nik
jangot asko asko eta handi naizenean,
alto alto, zu bezala, badakizu zer... es-
pinaka asko jan egingot eta bolia euki-
ko dut eta boliak egingo dau pof, pof,
popeye bezela eta gero zafraldia eman-
go deutset eta ai! aiaka hasiko dira.

- Baina horretarako denbora handia
pasa behar da eta bitartean zer egin?

- Botak jantzi, katua bezala, zafraldi e-
derra emateko eurei baina... Madrilen
poliziak ere dagoz. Eta makina bat.
Makinan sartuko gara eta etxerantza e-
gingo dugu.

- Zein makina?

- Madrilen dagoen makina bat!

- Eta zertarako da?

- Etxerantza joateko.

- Ah! metroa! mutil.

**Eta zuk nola nahi duzu ipuinak ikusi
euskaraz ala erdaraz?**

- Euskaraz!... eta zuk pelikulak nola i-
kusi nahi dozu?

- Euskaraz

- Ba joango gara telebistara ia ipintzen
duten euskaraz. Eta ipuin horretara jo-
ango gara, Eta Maia erleari euskaraz e-
giteko esango deusagu, eta kokuei eta
moskituei. Oso majoak dira. Euliak ja-
ten dabezenak. Baina ez badute egin
nahi,... moskituak zuk jokozuz beste-
la pika egingo nabe.

Eta zergatik eginen dau erdaraz Maiak?
...Ba oso zintzoa da.

- Telebistakoek uzten ez diotelako.

- Ba joko doguz eta euskaraz ipiniko
dute. Eta Maiak zer esango dau?

- Berak baietz esango du. Maiak mun-
duko hizkuntza guztiak dakitza.

- Frantses? eta Espainol?

- Espainola ere bai.

- Tximinian, tximinietan egoten dira
iberduerak, eta iberdueraz eginen dute,
espainolak dira.

- Ah! iberduerakoak erdaraz eginen du-
tela esan nahi duzu.

- Bai iberdueraz eginen dabe.

- Non ikastolan?

- Ez ikastolan ez, baina han ere erdel-
dunak dagoz. Tximinietan egoten di-

ran iberduerak keia ateratzen. Horrek
dira.

- Baina ikastolako mutilek euskaldu-
nak direla diote. Niri bat behintzat ho-
ri esan zidan.

- Niri ez! ba dakizu zer?... gezurra es-
aten dabe. Txikiñak direlako.

- Eta erdaraz eginen duzue Ikastolan?

- Nik ez! Nire lagun bati, Arantza, eus-
karaz eginen deusot baina berak erda-
raz.

- Ba dakizu zergatik eginen dizun erda-
raz? Ba, oraindik gutti dakielako, bai-
na ikasi nahi du.

- Ba orduan letrak egin behar dituz.

- Eta hitzegin behar da ez bada hitz-
giten ez da ikasten.

- Non ikasi duzu zuk erdaraz?

- Ikastolan. Ez nik ez dut ikasi,... jo-
lastuko dugu pixka baten esaten deut-
set eta -si- esaten dabe.

- Baina, euskaraz hitzegiteko ohitura-
rik ez daukatelako da hori.

- Euskaraz dakitenei euskaraz eginen
deutset eta erdaldunei,... euskaraz e-
giten daben erdaldunei, euskaraz be-

bai. Euskaldun gitxi ta. Eta nire lagun
handi bat, harek beti euskaraz eginen d
deuts... futbolan ere eginen dau. Baina

erdeldunekin erdaraz eginen dau.

- Eta andereñok zer eginen dute?
- Andereñok euskaraz!

- Bakarrik?

- Bai!

- Eta beste andereñorekin hitzegitean?

- Ba... nola egingo dabe ba euskaraz!

- Noski, noski.

- Baina umeek ez. Dame agua esaten
dabe.

- Baina oso ttikiak izango dira ez da?
- Bai hiru urtekoak dira

- Eta zuk zenbat urte dituzu?
- Lau. Baina nik badakit euskaraz ehi!

- Orduan euskalduntzen ari dira beste-
ak ez da?

- Bai!. Baina horretarako letrak egin
behar dira. Era biba! biba! ipuinak eta
telebista euskaraz emango dabez

- Aizu, zure ustez, kaminoko letrak, a-
nuntzioak, eta irudiak nola daude eus-
karaz ala erdaraz?

- Ba badagoz, erdaldunak dagozenez
erdaraz eta euskalduntzat euskaraz
dagoz.

- Ba nik ez nekian hori.



Zergatik ez Euskaraz erosi?

Euskadiko dendetan, produktuk gehienak, erdaraz eskaintzen dizkigute

Bitxienak, ingles, frantsez, italiara edo alemanez, frankotan.

Etiketak, argibideak, oharrak, publizitatea...

Guztia, hizkuntza arrotzez.

Zergatik bereizkena hau?

Merkatal alor guztietan euskara sartu eta erabileraztea, gure esku dago. Nola?

Geure hizkuntza darabilbiten saltokietan eta euskarazko publizitatez eskaintzen dizkiguten gauzak erosit. Gure hizkuntzan etiketatutik dauden produktuak eskatuz.

Euskara indarberritzearen alde
CAJA LABORALEko gizarte ekintza saila.



CAJA LABORAL POPULAR
LANKIDE AVREZKIA

EUSKADIko KUTXA



GORTEAK ETA GU

España será bicameral, esanda du Fragak orain bi urte. Eta noski horrela izan zen. Ez Fraga izorrratuak esan zuelako, orduko panpina zelako baizik. Berdin egingo zukeen Arias-ek, beste politik irudia eduki balitz edo noski edonork. Monopolioak teknikari asko baitu eta beste batzuk aginduz, ba dakite beraz nora jo. Espainia hau, beraz, bikamerala dugu eta kamera horretako senadoreek fikziozko betebeharrak eta aginteak dauzkate. Ongi samar egoten da senatuan. Bertara joaten direnak normalki, % 30 izaten dira. Kondu kondakariak gustatzen zaizkiona primeran egoten da. Tarteko luzeak ipiniz eta bertarako bisitak sakabanatuz atsegingarria



Polizi harmatu batek samaritanorena egiten. DEIAN argitara da bakea lortzeko taktika bitxi eta berri hau.



Fraga teknika baten aupegia besterik ez da.

• da partaidekoak izatea, bestela Senadoko lanei sendo lotzea aspergarria izango litzateke senadore askorentzat.

Ez da bestaldetik misterio handia zertarako sorterazi zuten kamara hau. Estatuari beti ikaratu zaion gauzarik handiena botere hutsunea izan da. Eta parlamentariak lege progresistegiak aterako balituzte hor bertan edukiko genituzke senadore sendoak gauza guztiak beren errotara sar daitezten ahaleginak egiten. Azken honi asmakaria deritzokegu. Gaur egungo parlamentariak ez lirateke, ez eta mozkorturik egon arren, bide horietatik abiatuko. Baina nork daki! Hobe da bazter guztiak ongi lotzea eta kabu guztiak korapilotsuak izan ere, hobeki nahastakerietan ez erortzeko... Hemen ez da legerik egiten. Baina zenbait lege deusezta daiteke edo objektiboago izateko, garbi daiteke. Dakigunez, Erregea, mutiko zelarrik, Frankok izurritik gorde zuen berarentzat. Nerabea izatean, ongi portatu zen zerbitzari ttipiarekin. Heldu zenean izuri sabaltzailea arrapatzeko posibilitatea hakan eta noski zerbitzari ttipi guztientzat, memoriak lagun, izurrigabe eta izurridun guztientzat, lan egokia topatu zuen Erregeak eta... haren zerbitzari ttipiek.

Ondorioentzat senatua seinala daiteke, seinalatuenak Erregearen borondatez egindakoak izanki.

Senatuak gauza bat egin dezake lege aldetik, eta beste bat, bertan dauden indarrak kontutan hartzen badugu. Lehenengoaren betebeharrean parlamentuak egindako legeen aldaketa sartu behar dugu. Bigarren debozioan, lege progresistenak ohorezki eta diplomatikoki izorratzea da seguruenik haren mandatua. Hala ere Kongresuak beti erabakitzen du azken hitza. Garaipen hau nahiz eta ttikia, ezker taldekoei zor diegu.

Parlamentariak bitartean konstituzioan ari dira. Gauza handirik egiten ez badute ere, hor dute gobernua, zeinek anitz lan daukan parlamentuan astia galtzeko. Eta erabakitzeotan gobernuak soilki erabakitzen du. Baina hobe egin dezake. AP parlamentuan lege atzeratzaileen alde, beti gobernuarekin batera joango da. Erabaki handiak hartu-

ko dira laster, parlamentuaren bidez, ala gobernuaren erabakiz, demokraziaren onerako beti.

Hemendik guttitara, baldin datorren ministro-ri kontseiluan "demokrazia" salbatu nahiez zenbait lege edo eta legegai prestatzen arduratuko dira fermuki. Heriotz zigorraren abolipena dudarik gabe, arrazoiaren garaipena dateke, arrazoi politiko-kontsekuente baten garaipena. Hastapenak, hastapen, eta hortaz gure txalo guztiak merezi ditu legegai horrek simbolikoki. Baina ez gaitezen fida. Azken batez, politika eskuindar nazionalistak interes zehatz batzuek defendatzen ari da. Askoz hobea da iraultzaile herritarrak gartzelan nola usteltzen diren ikustea, edonongo herria, Euskal Herria, beraiekin bat eginez nola bere herritarren bizitza defendatzen duen ikustea baino. Heriotz zigorraren abolipena kontextu horretan ikusi behar da. Estatuak, beste medio zihur eta finagoak behar ditu bere betiko helburuak lortzeko. Ez uste otoi, Biblia irakurri dutelako damutu direla hortaz. Heriotz zigorraren abolipena maliobra politiko bat da. Leyes antiterroristas, delakoei buruz gobernuak terrorismo hitzaren pean zaku berean sartuko ditu zein grapo zein Cristo Rey zein ETA. Logika berberekin jokatzuz, berdin eginen genuke guk baldin eta lege zapaltzaile horiek "terrorismoa" kentzera lagun gintzaketelako usteetan izanen bagina. Lege horien artean

sariak. Susmo guztietatik libre, zentzu batetan noski. Ikusi berria dugu bestaldetik gure egunkari hospetsu batetan argazki susmogile bat. Grisak samaritanoarena egiten. ETAkoak berbera egiten ez dugu orain arte ikusteko posibilitaterik eduki inongo egunkarietan. Beraien buruak memelotzat ikusi nahi ez badute Euskal Herriak zer pentsatzen duen hortaz jakitea eta noizean behinka denen ikuspuntuak argitaratzea komeniko litzaike. Badakigu basamortuan ari garela baina tira. Ohartzeagatik ez da izanen.

Politikak soluziona dezakeena lege errepre-siboek soluziona dezaketeela nahi dute. Zenbait talde harmatuei, gehiegi eskatzen ari direla esan dakieke. Sistema oso hau ez du azken batez zenbait talde harmatuen ekintzak soilki deuseztatuko. Ba dirudi ezen tarterik gabe, pausorik gabe, harantz honunzka etorrikerik gabe, ezin egin daitekeela. Eta hori da batez ere, ETAk ohartu duena, zenbait puntu zehatz proposatuz. Argudia daitekeena bestalde zera da: Proposatutako hauk lortzeko bide oker bat hautatu duela, politikak berak eta herri burruka lagundurik, gauza berberak lor ditzakeela, bestela herri burruka interferentziak sortzen dizkiola erakunde harmatu honek. Ba daiteke, hori esaten dutenak arrazoiak edo antzeko bat edukitzea. Hala ere ez gaude hain seguru, zeren berdin esaten



aurkitzen dira bereziki, telefonoak, eta, gutunak kontrolatzea. komisaldegietan 72 ordu baino gehiago gordetzea, judizial baimenik gabe etxeak arakatera, eta zenbait kasutan ere prentsaren libertatea moztea. Dena, demokraziaren izenean eta demokraziaren onerako pentsatuta. Gobernuarentzat, zenbait ezkertiarrentzat, Mujica Hertzog-entzat batez ere, terrorismoa ez da istilu politiko bat, gaizkile harmatuen problema besterik ez zatekeen

izanen. Egunkarietatik ETaren kontrako kanpaina putz egiten dutenek hemengo industrien beste toki baketsuagoetara ere alde egiten zutela esan dute askotan. Orain antza, bata eta bestea gehiekeria dela diote. Ez guk, "iraultzaile frogatuak" garenok, baizik eta susmo guztietatik libre dauden Euskal Herriko entrepre-

baitzen Carreroren hilketaz, argudioa zientifikoa zela gainera aseguraturuz. Herriaren desmobilizapena ez da ETaren biolentziaren ondorioa. Herriaren desmobilizapenak sistema batek sortzen du. Egoera ezberdinek sortzen dute. Nahiz eta honetan "iraultzaile oro" ados ez etorri, alde bateko edo besteko zoziologoei galde biezaiete bestea. Baina politik arazoa hain zientifikoa ez direnak pentsatzen dugunentzat dogmakeriak ez dira arrazoi ideologikoetan soilki oinharritzen; helburu ilun batetan baizik, Euskal Herriaren nortasun aurreratu nahi dutenen helburua ez den batetan bereziki.

Eta Euskal Herri hau normalizatu behar da, Euskal Herrikerik gabe geratu baino lehen. Batzuretzat normalizazioa eta deuseztapena berdin dira eta hori ongi argitu arte ezin dakioke ETari harmak uzterik eska.



ISRAELGO OIHU BERRIAK

Ez dago dudarik, zerbait gertatzen ari da Israelgo populazioaren mailan. Orain arte guztientzat sinetsgaitza zena posible gerta daiteke hemendik aurrera. Nazioarteko politikaz arduratzen direnek bakearen aldeko datu berezi bat ukanez dute osterantzean.

Joan den Apirilaren 1ean, 30.000 manifestari Tel-Aviv-en kontsigna berriak botatzen hasi ziren: *"Edozein Israel handia baino lehenago, bakea nahi dugu"*. *"Bakea ez da amets bat"*. *"Gure seme-alaben etorkizunak gure arbasoen hilhobi guztien gainetik pasatu behar du"*. Ba dago beraz zertaz ohar-tzea.

Orain duela aste gutti, honelako manifestalditarako egindako deiak ez zuen inolako ondoriorik. Testimonial mailan geratzen baitziren eta bertan parte hartzen zutenak "ezker puntako" militanteak ziren. Baina Apirilaren 1.eko manifestaldian, Tel-Aviv-eko enparantza nagusia, Israelgo erregeen enparantza, jendez josirik egon da. Harrituenak antolatzaile berberak izan dira. Ez zuten horrelakorik



Israeldar Armada Libanon. Armada okupatzaile bat



Herrialde okupatu guztietatik kanpora. Hori da baitapat Arabiarrek eskatzen dutena.

espero. Orain hilabete batzu egin balute ez zuketena ezertxo ere lortuko. Gaur egun aldiz, ia konturatu barik ikaragarritzko mogimendu protestatzaile baten aurrean aurkitu dira. Mogimendu honen eramale artean, Israelgo gazteria abertzale berria aurki dezakegu: Orain guttiran Armadaren ofizialak izandakoak, askotan kondekoratuak, orain berriz kontestatarioak.

Berauentzat eta jende arrunt askorentzat ere, bakearen aldeko itxaropenak erdi-galdurik daude jadanik. Izan ere, Sadatekin egindako harremanek bide berri bat ekar zezaketen. Zoritxarrez, bakearen aldeko plan guztiak Begin-en gobernu eskuindarrak pikutara bota ditu, lurralde "kontsezi-oak" ukatuz. Bestaldetik eskuin puntako nazionalistak Israel handia egiteko asmotan dabilta, eta ez soilki asmotan, eginetan ere bai. Aspalditxo honetan kargu publiko asko bereganatu dute; Telebistako zuzendaritza esaterako. Bide horretan abiatzen dutelarik beste gerra baten ondorioak neurtu behar harko zituzketen.

Hala ere bakearen aldeko indarrak ez dira horregatik mutua. Lehengo astean 300 ofizialek gutun ireki bat bidali diote Begin-i.

Eta, bakea nahi dutela, harremanetan egindako bake iraunkor bat eta ez inolako Israel handirik, ez inolako hegemoniarik diote eskribuan. Zer esanik ez dago, gutun honek probokatu duen eskandalua eta sostengua. Eskandalua goiko mailetan. Sostengua erakunde herrikoi askotan, ordu guttitan 17.000 sinadura bilduz. Basamortuan ari zirelarik, bakearen aldeko erakundekei burrukatzeko gogo eta nahia askotan falta zitzairen. Orain ba dute non hagin, ba dute zer egin eta nora joan. Ez dago hortaz dudarik.

Eta Israeldarrek bere nortasuna gorde bizi nahi baldin badute, besterena, Palestindarrena, errespetatu behar harko luketela ez dago hortaz ere dudarik.

JAKIN

EUSKAL KULTUR ALDIZKARIA

10 urte debekaturik egon ondorent
berriz kaleral

Hiruhilabetez behin
argitaratzen da

Monografiak
Dosierrak
Azterketak
Kritikak
Gaurko gaiak

Laugarren zenbakiaren
gai nagusia:

EUSKAL KANTA BERRIA

Laugarren zenbakiaren lankideak:

A. Otaegi, J.
Altzibar, J.
Artze, J.A.
Azurmendi, J.
Beloki, J.R.
Intxausti, J.
Iriondo, Luis
Knör, G.
Kortaberria, P.
Legarreta, P.M.
Lete, X.
Pagola, Manolo
Zubizarreta, I.

JAKIN

500 pta. urtean. 175 alea

Eskabideak eta harpidetza:

Cuartel, 2 - Tolosa (Gipuzkoa)
Tfno. (943) 65 11 06

SUKALDERAKO SALTSAK



TXIPIROIAK ETXEKO ERARA

Guk euskaldunok modu berezi bat dugu txi-
piroiak prestatzeko. Ongi egiten badira fintasun go-
zoenetariko bat bihurtzen dira.

6 lagunentzat behar dituzu: 24 txipiroi, ez
oso handi ez oso txiki, tipula bat, azenaorio bat,
bi baratxuri atal, perrexil pixkat, gatza, biperhau-
tsa, olibolia eta ardo zuri. Irin pixkat (1).

Txipiroiak nola garbitzen diren.

Txipiroiak bi atal berezi ditu. Bata kapelera
bestea barrukoa (hankak, hesteak, burua, etab.)
kapelerak hegats ttiki batzu edukiko ditu. Berauk,
kapelerarekin batera zuritu beharko dituzu uraz a-
zala kenduz.

Atera barruko guztiak. Hesteak, begiak eta
luma ezik, dena probetxagarria da baina kontuz,
zeren kapela barruan kola moduko materia bat ego-
ten baita eta berau ere bota behar duzu. Heste on-
doan tintarena dago. Ez bota, tinta horrekin saltsa
gingo duzu.

Ongi garbituta, barrukoa kapelera barruan sar-
tuko duzu berriro.

Nola egiten diren.

Olibolia daukan zartagin batetan tipula, aze-
naorioa eta baratxuri atal zati ttikiak ipin eta su
ttikitan frijitzen eduki ezazu. Bota berehala txi-
piroi guztiak, ongi sikatuak, gatza, eta nahi baduzu
irin pixkatxo bat. Dena doratu denean, ipin lapiko
zabal batetan txipiroiak eta pasagailu (2) baten bi-
dez zartagineko saltsa guztia tintarekin batera pa-
satu lapikora, txipiroien gainera. Eduki lapikoa su
ttikitan hamar minutu gutti gorabehera ardo zuria
hirugarren minutuan botatuz, eta perrexila eta bi-
perhautsa zortzigarrenan. Zerbitza itzazu nahi
duzun modura.

On egin.

1) Aukerapekoa / facultati^f_{vo}

2) Pasador / Passoire.

HISTORIAN ZEHAR

BENJAMIN DISRAELI

(1)



Txikitan esan zidaten, mundu zaba-lean, oihan berezi batzuetan, hil diren pertsonen itzalak bizi direla. Azken Aste Sainduko oporretan Iratiko oihanak bisitatzeko aukera izan nuen. Dakizueenez, Nafarroan daude, Pirinioetan, eta Europako handi eta ederrenetarikoa omen dira. Kontaezinak dira han duden zuhaitzak eta kontaezinak ere haien artetik ikus daitezkeen itzalak. Alderdi haren majestatak txunditurik eta kikildurik uzten du bisitzailea eta Naturaren poderioak gizonaren ahultasuna nabarmentzen du. Honelako eskenatokitian gizona ezereztu egiten da, txikitu, eta irudimenari bere hegaletan ibiltzen uzten diogu.

Han, larre berde batean, artzain bat artalde batekin zegoen.

- Kaixo!. Urrunetik zatoz, ezta?

- Bai, Bilbo aldetik.
- **Lekutatik!**
- Bai. Han hainbeste zarata eta jende, eta hemen bakartate hau. Ez al zara hemen aspertzen?
- **Aspertu?. Ez. Hemen ditut ardiak, eta itzalak.**

Eta txikitan entzunikoa kondatu niön. Eta hark baietz esan dit, Irati dela haietako oihanetariko bat.

- **Nahi duzu froga egitea?. Zatoz nirekin.**

Aldapatik behera jaitsi gara eta erre-kasto baten ondoan zuhaitz mordo bat zegoen. Hara hurbildu eta artzainak hitz egin dit.

- **Ikus. Hau duzu Benjamin Disraeli izandakoaren itzala.**

- Ez da egia izango!.
- **Bai mutil. Hitz egin diezaiogun.**
- Eta euskaraz zuzendu natzaio eta ulertu berak. Horrelakorik!.. Orduan, Disraeliz zerbait konda diezadala eskatu diot.
- **Luze da eta eser zaitetz -esan dit.**
- Eta horrela egin dut.

- Bueno, historia hau situatu egin behar dut, leku eta garai berezi batetan kokatu. Ez dizut zehaztuko juduen peregrinazio amaigabea. 1290.urtean Ingalaterra-

ko **Eduardo I** erregek hebreoak handik jaurti zituen. Haietarik gehienak Frantziara joan ziren. 1306.urtean **Felipe Ederrak** beren ondasunak kendu zizkien eta orduan Espainiara ihes egin zuten, non gizaldi bitan bizi baitziren. Espainian juduen aurka hasi zirenean, batzu Veneziara joan ziren, beste batzu Amsterdamera eta gainerakoak berriro Frantziara. 1649. urtean **Lord Fairfax**-ek eskari bat egin zuen juduak berriro Ingalaterran onhartuak izan zitezten eta **Carlos I**-ak, Cromwellen oneritziak, baimen hori eman egin zuen. Horrela, **Benjamin Israeli** aitita 1748. urtean Londresera joan zen, Veneziatik. Italian jaioa zen, **Ferraran**. Londresen, merkataritzan aritu zen eta **Sarah** izeneko andrea eder eta harro batekin ezkonduz, seme bakar bat izan zuten, **Isaac**. Aitaren nahien aurka, merkataritza utzi eta irakurtzeari lotu zitzaion. Egunak **British Museum**-ean ematen zituen irakurtzen eta notak hartzen, eta gero liburuak idazten. Dena den, ezkontzeko denbora bilatu zuen eta seme bi eduki: **Benjamin eta Sarah**, hau emakumea noski. Aitak bere liburuekin jarraitzen zuen, **Voltaire** eta **Rousseau**-ren jarraitzaile bezala eta ez zuen denbora askorik emazteari eta semei eskaintzeko. Beraz, gure **Benjamin** txikia giro intelektual batean hasi zen eta bere aita idazle handitzat eta gizon jakintsutzat zuen. Baina garai hartan juduak Ingalaterran ez zeuden oso ongi ikusiak. Bidali zuten eskolan, katolikoak eta juduak bazterturik antzean zeuden. Adibidez, gainerako ikasleek beren otoitz kolektiboak belauniko egiten zituztenean, katolikoak eta juduak zutik egon behar ziren...
Itzala geratu egin da bere hitz jarioan
- **Interesatzen al zaizu nire historia?**
- Bai, jarrai aurrera.
- Ongi. Aitita, judu amorratua, hil egin zen, eta aita hotzagoa zenez, eta ikusirik semeen nahigabeak, hauk Ingelesen erlijioan sar zitezela erabaki zuen. Koleji-oz aldatuz, **Cogan** doktoreak zuzentzen zuenera bidali zuen **Benjamin** semea. Mutila oso argia zen. Alde batetik, etxeko giro intelektualak dugu, eta bestetatik arrazaren inguruan sortutako istiluek sorte-

razi zizkioten pertsonalitatea eta nortasun sendoa. Bere adineko mutilekin elkartzen zenean, berehala nagusitzen zen, leoder bilakatzen zen. Kolejio berrian, teatro talde bat antolatu zuen, eta zuzendari bezala aritu zen. Ikastetxearen araudiak eta ohiturak horrelakorik egitea debekatu zuten, eskutuan ari ziren. Salhatu zuten eta irten erazi. Benjaminek 15 urte zituen eta berriro etxean aurkitu zen, jadanik bi kolejioetatik irten behar izanek. Zer egin? Ikasteari lotu zitzaion, ikasteari burkartzatean. Izpiritualki zauritua izan den batek garaipenean soilki bila dezake bakkea. Ikasi egingo zuen, eten gabe. Ez zen gizon handia izango, gizonik handiena baizik. Horrela soilki, bere arrazarengatik, bere jatorriarengatik hainbeste ate hitxi zabalduko lirarteke, horrela soilki desegin zezakeen bere aurrean altxatzen zien hasia. Veneziako burruka ezkutuak, agiriaren ez baina aspajokoz egiten zirenak arre-taz aztertu zituen. Ordena erlijiosoen antolamendua errotik sakondu zuen, bereziki jesuitena... Misterioa atsegin zitzaion...

Eta itzalak irribarre maltzur bat zuzendu dit.

- Eta bereziki euskaldun, bueno vasco horietako baten ekintzak, Loiolako liturgorenak halegia: Lagunak nola aurkitu, bildu eta kontrolatzen zituen interesatzen zitzaion biziki. Eta honetaz gauza bitxi bat kondatu behar dizut. Benjaminek lehen asmoa poeta izatea zen, poeta handi bat, Byron bezalakoa edo handiagoa. Baina ikusi zuen poetak jeneralki bere hospes hil ondoren lortzen zutelara, eta berak hospes bizitzean eta ez heriotzean nahi zuen. Horrengatik, ekintza gizona izatea erabaki zuen eta horretarako prestatu zen, orduak emanik. Bere aita kezkatuak zebilen semearen asmoak zirala eta. Orduan, bere adiskide prokuradore batekin lan egitera animatu zuen. Hasi, mutilik ez zuen nahi, baina gero bulegoan jendea ezagutzeko aukera izango zela pentsatu baitzuten. Jendea ezagutzeko interesgarria litzatekeela pentsatu zuen eta Jupiter etorri zitzaion gogorra, zein animalia eran maskaratu baitzen haiek hobeto ezagutzeko, haiekin burrukatu behar zenean garaipena errazago lortzeko. Baina Benjamin ez zen, horrela, toki batean luzaroan irauteko gizona. Garaipena berandu lortzea, ez da garaiztea, pentsatzen nuen.

Disraeliren itzala ixildu egin da eta ba dirudi nire komentarioren baten zain dagoela.

- Hori al zen Disraeliren pentsamenduetariko ideia nagusi bat?

- Horrela da. Disraelik ez zuen nahi denbora galtzerik. Garai hartan, lanordua bukatzen zirenean, irakurtzen jarraitzen zuen, eta egunaren zehar ezaguturiko pertsonen karakteristika nagusiak idazten eta aztertzen. Beraz, ez zuen liburuetatik soilki ikasten, eguneroko bizitzatik ere baizik. Maiz adiskideekin elkartzen zen eta jende hospetsua ezagutzeko aukera izan zuen. Andre ederrak tratatu zituen. Baina txikitik harturiko zauriak ahantzi gabe zituen. Ez zen egiatia izatera ausartzen eta txantzetan ari zenaren gazte bezala hartua zen. Sintzaritatearen lekuan zinismoa erabiltzen zuen. Beldur zen gauzak eta sentimenduak, berari zegozkionak noski, ziren bezala azaltzen. Txikitik hainbestetan ezkutuak, eta batez ere bere sentimenduak ezkutatuz ibili behar izan zuenak, ez zuen gaztaroan ohitura hori galdu ahal izan. Jantzeria nabarmena zerabilen eta fama zuen, gizonekin gogorra eta emakumeekin ausartia zela. Taldean, nabarmentzen zen, bere balioa gaintzen zen. Emakumei atsegin zitzaion. Bere aitarekin Alemaniara bidaia joan zen. Han,

jauregi-tako saloi ederrenak kurritu zituzten, Rhin hibaia inguruetako paisaiarik ederrenak begiztatu, politika eta literaturako pertsonaia aipagarrienak ezagutu eta agurtu... Eta Benjaminek erabaki zuen berak ez zuela Cesar edo Napoleonek bezala egingo. Bera haiek baino arinago hasiko zela hospesaren plazerrean dastatzen. Eta prokuradorearen bulegoan uztea erabaki izan zuen. Berriro Londresen, Amerikako kolonien erreboluzio giroa bizi izan zuen. Erdi eta Hego Amerika, Espainia eta Portugalen aurka altxatu ziren eta Canning ministrariak laguntzen zien, jasaten zuten inperialismoa burrukatzen. Trukean, Ameriketako ex-kolonia haiek ingelesei meatz kontzesioak eskaini zitzaizkien.

Xabier Gereñio

(Jarraituko da).

MUNDUKO HIRI NAGUSIAK (1) LONDRES

LONDRES ALDEA



Londresez aspertu den gizona, bizitzaz asperturik dagoela diosku ingeles esaera zahar batek. Gero eta gehiago dira, halabaina, beren hiriaz gogait egiten duten londrestarrak. Atzerritarrentzat hainbeste xarma dauzkan hiri honek ez ditu bere bizilagunen gogoak betetzen eta, mundukohiriburu muntro guztietan jazotzen den legez, inguruko huzategi lasaiagoetara joan nahi lukete Londres-tarrek.

Paris, Brusela eta Europako hiriburu askotan bezala, Tamesis ondoko hiriaren populazioa ez da azken urteotan hazi. 1934. urtean 8.000.000 lagunek osatzen zuten hiria. Gaur egun, aldiz, 7.000.000 besterik ez dira. Etor-kizunerako egin diren aurreikuspenen arauera, guttitze hau ez dela geratuko dakusagu. 6.500.000 lagun kalkulatzan da 1981.era eta 6.000.000 1990 ean.

Gutiketa honen eragina erdialdeko huzategietan nabaritzen da bereziki. Alderdi horretako zenbait huzategi bere bizilaguneriaren 0/0 20 gal-tzera iritxi da. Populazioaren kopurua gehiago mantendu da erdigunetik apartatuago dauden huzategietan.

Thames Telebista Kateak prestatutako inkestaz baliaturik, Londrestar erdiek ahal izanez gero beren bizi tokia oso gustura aldatuko luketela ikus daiteke. 0/0 15a ez dago bere oraingo bizitokiaz bat ere pozik. Inkestatuen 0/0 80k ez lukete inola ere hiriaren erdialdean bizi nahi. Zenbat eta erdiko pilaketarantz gehiago hurbildu, gehitu egiten zaigu deskonformeen kopurua. Bilborako antzeko galdeketa bat prestatuko bagenu, auskalo zer aterako litzaigukeen! . Londres-tarrek, gazteek batez ere, kontutan hartzen dituzte erdialdean bizitzeak suposatzen dituen abantai-

lak, hau da, lantoki, olgetaleku eta merkatal zen-
truen gertutasuna. Adinari dagokionez, erdialdean
gusturen biziko liratekeenak gazteak dira. Baina
hiriaren bihotzean bizi nahi ez izateko arrazoiak,
aldiz, ugariagoak dira.

Londrestarrek inkesta horren bidez ematen
dizkiguten arrazoiak asko dira: Hiriaren zaratak,
zirkulazioa, haurrak egokiro hezteko dituzten era-
gozpenak etab. Anitz hiritarrek bakartasuna eta
elkarbizitzaren eskasia aipatzen dizkigute. Ez
omen dute bizi diren tokietan ia inor ezagutzen
eta ezagutzen dituzten lagunak asteburuetan bai-
zik ezin ditzakete ikus. Beste hiri handietan legez,
hauzategietan eramaten den elkarbizitza oso urria
da eta gizonezkoentzako eraikirik ez dagoen hiri
batetan bizi direla pentstzen dute. 0/0 11k txabolen
hauzategietan bizi direneko sentimendua dau-
kate. 0/0 8 bandalismo eta erasoen arriskueta
kexatzen zaigu. Zorionez berientzat, Londreseko
bizilagunek ez dute Bilbon bizitzera beharturik
gaudenok pairatzen dugun kutsaduraren antzeko-
rik, azken urteotan asko jeitsi baita berau.

Gehienek hiritik kanpoko landetxe zabal
eta eroso bat topatzeko eta beren lorategia lantze-
ko ametsa gordetzen dute.

LONDRESEN BIHOTZA HUSTEN ARI

Erdialdean beren bulegoak ezartzen zituz-
ten entpresak gero eta gehiago izan dira 1960.e-
rarte. Baina, harez gero egoera oso aldaturik dago.
Zergetan eman den gorakada oso handia izan da eta
egun oso gutti dira, beren lokalak parte horretan
eduki ditzaketen entpresak. 1970.ean zergetan
ordaintzen zutena ez zen lokalen alokairuaren
0/0 11ra baino gorago iristen. Aurten aldiz, 0/0
68 pagatzen ari dira. Honen ondorioz, oraindik
gelditzen diren entpresarietarik erdiek baino
gehiagok tokiz aldatzea pentsatua dute jadanik.
Gutziz konpainia boteretsua behar da izan gure
egunotan, lokalak erdialdean mantendu ahal izateko.

Lan kontuetan ere ez dabilta Londrestar-
rak ongi. Azken 10 urteotan, industri sektorean
lanpostuak 0/0 27 batetan guttitu dira eta, sektore
guztiak batera hartuta, postuen guttipena 0/0 7-
koa izan da.

Hiriaren irudi tradizionala asko aldatu da,
eta ez beti onerako. Anitz hotel eta dorre moder-
no handiak eraiki dituzte Hyde Park ezagunaren
ondoan eta porlan era aluminiozko edifizio erral-
doiek irentsi egin dute Saint-Pauleko khatedralea.

Erdigunea hustuz doala eta administrazioak
proiektu batzu egosi ditu hauzategi hauetara jenda-
keta berriak erakartzeko. Covent-Garden-en, kasu,
hiru mila lagunentzako bizitokiak, kondizio sozia-
letan antolatzeke asmoa dago. Bide batez, hauzate-
gi osoa bezala, merkatu zaharra ere berriztatua iza-

nen da. Jantokiak, dendak eta museo bat zabaldu-
ko dira.

Londresen bihotza birpopulatzeko plan
hauen artean, garrantzitsuenetariko bat City-rena
dugu. Egunez 400.000 pertsonak lan egiten duten
hauzategi honetan, gaua heltzean 8.500 lagun bai-
zik ez dira geratzen.

INMIGRAZIOA

Kontrastez beteriko hiria da hau, Askotan
aski zaigu kale bat zeharkatzea Victorian tankeraz-
ko etxe aberats dotoreek osatzen duten paisaia
utziz, berehalaxe beltzen ghettoen hauzategi ilun
eta pobreetan sartzeko. Kale hauetan pilatzen dira
Commenweltheke nazioen pasaporteaz baliaturik
iristen diren atzerritarrak. Anitz dira bizimodu
dexenteago baten esperantzaz, Britainia Haundi-
ra eta batipat Londresera ailegatzen diren Indioak,
Pakistaniarrak eta Beltzak. Kanpotar hauek osatzen
dute Londreseko populazioaren 0/0 10a eta hau-
zategi batzutan gehiengo dira.

Londrestar erdien ustez, hirian arraza pro-
blema gogorak daude. East-End'en, esate batera-
ko, langabeziaren arazoak bertakoen 0/0 10eri
afektatzen dio zuzenki. Ez da beraz batere harri-
tzekoa, langabeen kopurua hain handia den eta
bizi kondizioak hain eskasak diren hauzategi
hauetan, delinkuentziaren portzentaia Londrese-
ko altuena izatea. Eta ba dirudi, Antillas-etako
Beltzen hauzategietan urtero ihauteriak heltzean,
zerbait lehertu egiten dela. Ihaz 400 zauritu ger-
tatu ziren poliziarekin izandako gatazketan, eta
hauxe urte guztietan errepikatzen ari da.

COUNCIL HOUSES

Hiriko udala aspalditik arduratu izan da
pobreentzako bizitokien arazoa nolabait konpon-
tzen. Gaur, Londreseko etxeen hirurena, hots,
2.200.000 bat etxe, sektore publikoarenak dira.
Bizitoki hauetako lagunek batez beste zazpi inge-
les libera ordaintzen izan dute asteko, 1.100 bat
pzta. halegia. Sektore librean antzeko etxeen aloka-
iruak hiru bider altuagoa dela kontutan hartuz, hau
ez da kantitate handiegia.

Baina gaur egun, Council Houses direlako
hauen etorkizuna aski beltz dago. Udalak hiriaren
presupostu osoaren laurden bat gastatzen du be-
rauen mantenamenduz. Ekonomi krisisa dela eta,
gastu hau guttitu nahiz, ahal denik eta Council
Houses gehien saltzeko asmotan dabilta azken
hauteskundeetan gehiengo atera zuten kontser-
bazaleek. Dakusagunagatik, oraingotan ez dira
hain kontserbatzaile gertatu eta, noski, etxe ho-
rik erosi ahal izanen dituztenak, beti bezala, ez
dira behartsuenak izango.

ANAITASUNA

Etxeak urperatzen eta izpiritua urtzen VENEZIA HILTZEN ARI OMEN DA

Venezia, kanale eta gondolen hiri famatua hiltzen ari da. Etengabeki, urek irentsi egiten dute egunero apurtxo bat gehiago. Eta artez eta edertasunez beteriko plaza eta monumentu zaharrekin batean, izpiritua ere, hiriarri hain entzute handia eman dio izpiritu erromantikoa hiltzen ari da, eta gaur, Venezia ez da lehen bezala artista famatuak sortzen zituen hiria.

Edozein denbora egoki da Venezia ezagutzeko. Ba dirudi beti berdín dagoela. Kale herstuak, eta San Marco plazara joateko fletxaz josirik. Kanaleak, batzu zikinak eta gehienak ez oso garbiak; gondola beltzak; gabarrak eta vaporettoak; txalupa-taxiak... eta kanale gehiago, jauregiz eta elizaz hesiturik.

Lira (dirua) asko behar da Venezia-ko komertzioetan ibiltzeko. Murano islako kristalezko irudiak eder bezain garesti dira. Baina souvenirrak erosi behar dituzte turistek. Muranoko irudi bat dutela etxeraterakoan hauzokoei erakusteko, bedere.

Baina Venezia ez da turistiko mapa batez ezagutu behar. Hobeki esanda, arruta turistikoei kasu eginez ez da Venezia. Veneziaren bihotza ezagutzen. Eta gainera, ez da ezagutzeko, sentitzeko baizik.

Bai. Sentitu egin behar da.

Zubiak pasa, kale meharrak oinpera, kanaleetan dabilzan gondolak begira, eta ibiliz, ibiliz... oinak minberatu arte ibiliz, kaleetako labirintoetan mila alditan galduz, sentituko duzue Venezia.

San Marcora heldu.-

Eta ilunabarrean, hainbeste pauso eman ondoren, San Marco plaza agertuko zaizue zeuen aurrean. San Marco plaza aurkituko duzue.

Orduan, egiazko Venezia ezagutzen eta bizitzen ari zaretela sentituko duzue.

Lurrean edo eskilara batzutan eseriko zarete eta, iluntzen ari den bitartean, usoek, enplegatut batek ematen diene artalea, irentsi nahi dutenean, orduan, orkestra batzuren bibolinak entzungo dituzue, bals piezak joz.

Hor bukatzen da eguna eta hasten da ametsaren garaia. Orduak botako dituzue plazan eserita, pentsamendutan.



Veneziako kanale nagusia da hau. Alde batetik bestera gurutzatzen du. Ezkerretan, jauregi zahar bat hotel bihurturik. Aurrean, Eliza inportante bat.

Nekearen ondotik senti daitekeena da Veneziaren izpiritu erromantikoa arrontzentzat. Horrela ukitzen da Adriatikoko hiri hau. Hori baita ezagutzea; ez, turista komodoek egiten dutena: fotoak atera, souvenirrak erosi eta ez nekatzeko txalupak alokatu.

Baina beste alde batetik, veneziarrak turista horien beharretan dira bizitzeko. Turismoa eta komertzioa sendeak baitira.

Imajina esteriotipatu bat du jendeak Veneziatz. Horrengatik, egin dudana bidaia batetan normala ez den aurpegi bat ikusi nahi izan diot. Turistikoa ez den bat.

Garaiotan, honeraino ere heldu zen Aldo Mororen bahiketa eta brigada gorrrien historia. Kartelek eta aldizkariek adierazten zuten, baina, veneziarrei oso gutxi nabarmentzen zitzaizkien kezka politikoa hori, azalean gutxienez. Poliziarik ere ez zen kasik ikusten.


Hiltzen ari omen.-

Hiltzen ari omen da. Urperatzen ari omen da. Zientifikoek kalkuluak egiten dituzte hainbat urtetatik zenbat zentimetro urperatzen den jakiteko. Bertako jauregiak eta elizak, etxeak eta ondasunak, galtzeko arriskutan omen daude. Udal erakundeak kexu dira Italiako gobernua diru gutti ematen dietelako monumentu berritze eta konpontze lanetarako.

Veneziaren fisikotasunaz bakarrik kezkatzen dira eta ohartzen.

Baina fisikoarekin batera, beste heriotza sakonago bat darama bere gain. Izpirituaren heriotza luzea sentitzen da San Marcoko harri landuetan. Dekadentzia.

Kulturaren eta, batez ere, artearen hazlekua izan zen hiria, bere historia-ri hildotik baztertu da. Garai batez hain garrantzitsu zen "Akademia dell



Hona hemen Veneziako jauregi karakteristiko bat. Orain hotela da. Kanalean, veneziar batzu gabarran garraiotan.

arte"-k, iraupenaren ilusio bakarra du. Mundu guztian hain famatua izan zen eta den akademiak, karbontziloa nola erabili erakusten die, nagusiki, turismoari salduak zaizkion sasi artista bostemioei. Hori bail. Oso trebeki erakusten die hauei karbontziloaren erabilkerara. Baina ez da artistarik ateratzen, garai batetan bezala, Akademiatik.

Zer pasatzen da Venezian, giro triste bat sumatzen den?

Gerra mundial ondoretik.-

"Bigarren gerra mundial aurretik, Mussoliniren urteetan, Italiako burjesiak Venezia zuen eredutza. Hona e-tortzen ziren artea eta formak ikastera eta kopiatzera, baina gerra ondoretik, poliki poliki, kapitalismoak jan du lehengo artista izpiritu hori, burjesiaren erromantizismoa. Orain, dena komertzializatu da. Kapitalismoari ez zaio in-

teresatzen artea, turismoarentzat prostituitua ez baldin bada. Baina ez arte bezala (burjesen desioa), baizik sailka egiten den negozioa bezala". Hitzez hitz, hauxe esan zidan veneziar mutil batek, kafetegi barroko baten aurrean.

Aste Santuko Ostiral Santua... Basilikan hamasei apezek egin dituzten elizkizunak. Bidaia organizatutan etorri diren turistak taldeka (prozesio modura) eta zizerone batekin kaleetan barreiatzen dira. Hala ere, oraindik turista gutti dabil.

Bi orkestra ari dira San Marco plazako kafetegietan bals piezak jotzen. Adineko musikoak dira. Ofiziokoak. Bibolinen soinu finak eta usoak plazan hegaka, erromantizismoz betetzen duten inguru.

Ilunabar ederra. Giro hunkigarria sortzen du plaza honek, baina zahartasuna, belle epoque garaietan geldituriko giroa. Soineko harroz jantzita

eta kapela zabaletan begiak gordetzen dituzten madonnak paseiatzen direla dirudi, bibolinen pieza artetan, esku lar-rudun besoetan gardenia bat dutelarik.

Eta Veneziako errepublikaren urta-beak joan ziren.

Vivaldi hemen jaio zen 1678. urtean. Orain, malenkoniaz entzuten dira bibolinak.

Dekadentzia eztsua.

Gauak ez dira fidagarri

Veneziara heldu nintzen gaua kon-datzeroa noa. Gaueko hamabiak ziren. Adriatikoko arrantzaleak beren katuskak eta untzi txikiak itsasora zuzentzen dituzten ordua. Eta ni, trenez, gondolen hirira hurbiltzen.

Italiako Estatuaren trenak, zorionez puntuala beti, penintsula utzi du eta kilometrotako zubian sartu da. Ezker eskuinetan itsasoa dago, bare, eta aurrean: Venezia. Zubi horrek, zilbor heste bat balitz bezala, penintsularekin lotzen du, eta era berean, penintsularengandik bereizten du.

Motxila bizkarrean, "vaporetto" baten geralekura noa. Venezian ez da autobusik, ez autorik Bidaia eta ibilaldi guztiak txalupaz edo oinez egiten dira (kanaleak iragateko zubiak baitaude). Baina lehorreko autobusen lana, Irui-neko autobusen lana adibidez, vaporetto horiek egiten dute, eta txartel bakoitzak berrehun lira balio ditu. Hogei pezeta diru trukean, kanale guztietan ibiltzeko.

Geralekura heldu naizenean, gizon bati galdetu diot ea noiz etorriko den hostello de la gioventura eramango nauen vaporetto.

"Orain ez duzu vaporettorik hostello de la gioventura (gazteen albergera) joateko. Beranduegi da eta, hobe duzu trenaren geltokian gaua pasa. Venezia arriskugarria da gauez, bandidu asko ibiltzen baita kalean, dirurik gabe, eta harrapatzen baldin bazaituzte, dituzun sosak kenduko dizkizute. Begira, ni hertzaina naiz eta pistola daramat... (Eta jaka lasatuz galtzarbe parean daukan harma erakusten dit)... baina lapur horik ez dira italiarrak, ingelesak eta yankiak baizik. Hippi alfer batzu besterik ez. Joan zaitez trenaren geltokira eta hango egongelan bero-bero lo egin.

Horrela mintzatu zitzaidan gizon hura, hertzaina, helduz gero aurkitu nuen lehendabiziko gizasemea. Euskaldun nintzela esan nion, eta poztu zen.

Geltokiko egongelan moeta guztitako jendajak geunden lotan. Goizeko hiruretan karabineroak etorri zitzaizkigun.

“Pasaporteak eta tren Txartelak”.

Polizia sekretu bat, edukazio osoz, mairu bat interrogatzen hasi zen. Neu aulki batetan etzanda nengoen, lo egiteko zakuan bildurik, eta atzekaldean mairua zegoen. Galdera pilo bat egin zizkion poliziak eta azkenean paketa utzi zuen.

Aldo Moreoren bahiketak ekarri dituen kontroletako bat horrelakoa zen. Demokristauen buruzagia bahitu baldin bazuten ere, ez zen asko nabaritzen Venezia. Trenaren geltokian bakarrik ikusten zen poliziarik, zaintzen.

Eta goizaldera, vaporettoa hartu nuen hiri barrenean sartuz, gazteen albergera joateko.

Venezia erromantikoa egunsentiko azken lainoetan. Gondolak dantzan ikusten dira uraren olatu txikietan. Veneziarrak vaporettoetan lanera doaz.



San Marco plaza ondoa. Ezkerretan gondolak daude. Eskuinean plaza hori hasten da. Bi pertsona eta uso asko. Aste santua zen.

Veneziarren eguneroko bizitza

Baina Venezia ez da turistena. Hauek egun batzu pasatzen dituzte eta diru pixka bat, ala asko, gastatuz, beren herrietara itultzen dira, bidaia turistikoaren edertasunak eta benturak kondatzera. Han, baizik, komertziantek eta kale garbitzaileak gelditzen dira, eta arrantzaleak. Hitz batez, veneziarrak.

Nola bizi dira? Zer egiten dute eta zerez baliatzen dira bizitzeko?

Jendea turismotik bizi da. Horren inguruan dabil.

San Marco plazara ez direnean oraindik jaitsi usoak, egun argitzean, hasten da veneziarren eguneroko bizitza. Gondolak kanale ertzetan sokaz loturik daude ziri bati.

Hondakinen gabarrak, burdinezkoak, hasi dira lanean. Zarama zerbitzua goizeko zazpitan hasten da, eta kanalez kanale erretegi batetara eramaten dituzte.

Mila moetak eta mila zerbitzutarako gabarrak ikusten dira.

Batzuk edariak eta janariak daramatzate dendetara, bestek komertzioetako jeneroak garraiatzen dituzte.

Ura da garraio bidea, eta hiriaren aktibitate guztiak horren bidez egiten dira.

Kale garbitzaile batek esan dit, goizeko zazpitan hasiz eguerdiko ordu batetan bukatzen duela lana. Francesco du izena eta laneko arropetan PCI-ren (Italiako alderdi komunista) insignia darama.

- A! Bon giorno! espainola zara... Carrillo komunista... ni ere komunista,

tak, kanale nagusia enfokatuz. Urrutitik etorritako pintatzaileek koadro artistiko eta hilezkorra pintatzen saiatzen dira. Ikusi nituen bozetoetan garbi berdintsuak zerabiltzaten gehienek kanalea; gondola eta dorre zorrotzak jauregiak. »

Anbulantziak ere txalupak dira

Bai, ambulantziak ere txalupak dira. Funerario entepesek txalupa barrotakoak dituzte hilak garraiatzeko eta kanposanturatzeko. Hileta bat ikusteko zoria izan dut. Elizkizunak bukatu ondoren, apezak txalupa funebrean behera inkatzen du eta hau eginez gero, gorpua sartzen dute. Lore koroak handiak dira, ohitura den bezala.

Eguneroko bizitza den bezala, kasualitatez txalupa funebrearen ondorio obretako gabarra bat aurkitzen da, zaborrez eta orgatitez beterik. Maniobra egin behar dute pasalekua izateko kanalean.

Egun hartan, ertzean, txalupa bateko gidaria pixa egiten ari zen kanalera, askok egiten duten bezala. Urak zikinak daude, botilez eta zaborrez zikindurik. Veneziarrentzat ez baitira fotografiatzeko gaiak bakarrik, baizik eta, eguneroko bizipide.

Horretan dago kanpotarren eta bertakoen arteko diferentzia bat. Kanpotarrek turistiko ikuspegia dute, eta fisiko heriotza bakarrik ikusten dute, veneziarrek kultur hiltz senti ahal dezaten bitartean.

Eta oraindik okerrago, beren etxean ez dira nagusi sentitzen. Etxeko konf-

begira zazu nire insignia...

- Ez, ez naiz espainola, euskalduna naiz... prego, per favore!

Eta nire italiano jergan, euskalduna naizela adierazten diot, ez dakit zer hizkuntzatan egiten diodan, baina gaztelaren eta italiano makarroniko baten saltsa da nire: “prego, soy vasqui. Bai. Per favore. Et tue ser komunista? A! bon Giorno”.

- Vasque? Bene, bene.

Haren lankideekin batera argazki bat ateratzen diot, zoritxarrez errebelatzerakoan deuseztatuko zaidan argazkia.

Goiza aurrera doa eta turistak hasi dira kaleak oinperatzen, paseiatzen. Komertzio guztiak irekita daude. Rialto zubiak hartu du bizitasuna. Souvenir argazkiak ateratzen ari dira turis-



Veneziako kale normal bat. Kale hertsua eta dendaz bete. Hori bukaeran, beste guztiak bezala, zubi bat egongo da.



Merkatu anbulante bat.

dantza galdu dute. Orain turismoaren morroin bihurtu dira.

Veneziarren harrotasun garbia ere urperatzen ari da.

Nola egiten gondolak

Gondolak egiteko bi lantegi dira

Venezian. Lantegiok oso txikiak dira, eta tradizioz pasatzen da gondolak egiteko teknika. Gurasoek semeei erakusten diete.

Lantegi bat bisitatu nuen. Bertan bost gizonek lan egiten dute. Michele nagusiak berrogei urte baino gehiago daramatza gondolak egiten. Galdera

batzu egin dizkiot:

- Zenbat balio du gondola batek?
- Gondola xinpleak, hau da, apaindurarik gabe, 3.000.000 lira balio ditu (hirurehun mila pezeta), eta arraunkin eta burdin txapekin 5.000.000 liratara ailegatzeko da. (bostehun mila pezeta).

- Zer iraupen du gondola batek?
- Segurtasun osoarekin, 25 urteko iraupena bota diezaiokegu gondola bati.

- Zer gai klase erabiltzen duzue?
- Zortzi zur klase erabiltzen dira gai bezala: harizkia, pagokia, izeikia, zumarria, eta abar.

- Zenbat ordu sartzen dituzue gondola bat hasi eta bukatzen?

- Batez beste 350 ordu sartzen ditugu gondola bat egiten. Gutti gora behera, bi hilabete eta erdi.

Lantegia oso zaharra da, eta esan didanez, berrehun eta berrogeitahamar urte darama lantegi honek gondolak egiten. Urte asko. Hemendik atera diren gondolek ba dakite Veneziaren historia, azken historia. Nagusiak ere ba daki.

I.Zabaleta

KAFETEGIA



J. JAUREGI 6 ZORNOTZA. Tf: 673 00 21
Av. EJERCITO 4 DEUSTU. Tf: 447 97 75

ERLOJUTEGIA ETA BITXITEGIA

ORIENT - SEIKO QUARTZ

**Comercial
SANCHEZ**

Erregalugaiak (Hemengoak-Atzerrikoak) eta enkantea.

Erloju moeta guzien konpontze segurtatuak.
Bapateko bitxigintz grabatuak

DENDA NAGUSIA
Ramón y Cajal 30
Telf. 4357595
DEUSTUA - BILBO 14

ORDEZKO DENDAK
Particular de Diez 2
Telf. 4331743
SANTUTXU
BILBO

Rondoko 4
Telf. 4470338
SAN IGNACIO
BILBO 14

BAZAR SANCHEZ
Virgen de Begoña 16
BASAURI

ESKOLARAKO HIZKUNTZ POLITIKA BATI BURUZ ZENBAIT GOGOETA

Azken urteotan ideia eta azterketa batzu plazaratu dira gure artean, hizkuntzaren arazoa sozio-linguistik ikuspegi batetik argitzeko oso baliagarriak izan zaizkigunak. Azken finean ideia arrotz guzti hori, "Euskararen Liburu Zuria" delakoan geratu da nolabait kodifikaturik eta gorpuzturik. Libururaren aurkibidea irakurri besterik ez dago, begi-kolpe batez ohartzeko zeintzu diren orain arte hizkuntzaren fenomeno aztertzeko eskuartean erabili ditugun aldagaiak edo faktoreak. Besteak beste, eta zerrrenda agortu nahi gaxe, aipa ditzagun:

- Faktore sozio-ekonomikoak
- Faktore politiko-administratiboak
- Faktore Juridiko-legalak
- Hizkuntza minoritarien azterketa gonbaratiboak
- Diglosia-elebitasun kontzeptua
- Normalpen linguistikoaren prozesuak

Ez dago dudarik, hizkuntz-politika baten ezartzeari buruz berebiziko tresnak direla hauk.

Bestalde Eskolarako hizkuntz-politika ezin daiteke eraiki, soilki hizkuntz-politika bat egin aurretik, hura honen azpi-multzo edo zati besterik ez baita. Bestela esan, hizkuntz-politika orokorrak ezarriko dio eskolakoari koadro makro-linguistikoa. Honetaz kanpo uste dut, beste tresneria finago bat eskuratu behar dugula, lehen ditugunaz gain, ez kontra. Eta beldur naiz orain arteko abailan lortu ditugun eskema mental eta praktikoak ez ote diguten zenbait oztopo ipiniko eskolarako hizkuntz-politika bat definitzerakoan.

Exenplu bat ipiniko dut nire beldur hau argitzeko. Har dezagun esate baterako "diglosia" kontzeptua.

"Diglosia" kontzeptua "elebitasun" kontzeptuari kontrari zaio, bigarren hau, hain zuzen ere, ideologia asimilazionista ren adierazle delakoan. Eta hala da, makro-linguistika mailan. Beraz hizkuntz-politika orokor bat planteiatu ahal izateko, normalizazioa helburu bezala hartuz gero, ikuspegi diglosikoa erabili beharko dugu, elebitasun-ikuspegia nahaspide denez gero. Beste maila konkretu baten ordea, pertsona mailan edo eskola-mailan esate baterako, ez dago zertaz bi kontzeptuok kontrajarri beharrik.

Maila honetan biak bata bestearekiko osagarriak ditugu, are gehiago, interaktiboak dira. Esate baterako, gure hizkuntzaren egoera diglosikoak eskaintzen digun irtenbidea dilematikoa dela eta (hizkuntzaren asimilazio prozesuari amore eman ala

normalizaziorantz abiatu), ez daukagu zertan eskolarako hizkuntz-politika irredentista itsu bat, non-nahi eta noiznahi, jarraitu beharrik. Konkretukiago esan: eskolari dagokionez, ikuspegi diglosikoa besterik ez badugu erabiltzen, elebitasun egoera desberdinak eskatzen dituen tratamendu bereziak antolatze behar diren faktore baldintzatzaileak (hala nola faktore psikolinguistikoak, metodologi arazoak, sozio-linguistik egoera desberdinak, e.a.....) guttiesteko arriskua daukagu, praktikan gertatzen zaigun legez. Honen frogagarri bezala hor daukagu ohartuki, ala oharkabean, ikastoletan ezarri nahi den eredu linguistiko bakarra, nahiz eta ikastola bakoitzaren sozio-linguistik egoera eta bertako haurren elebidun maila oso desberdinak izan.

Hau exenplu bat besterik ez da.

Artikulu sail honen helburua, euskal irakaskuntz politika batetarako zenbait gogoeta egitea litzateke, aportazio gisa, zeren eta uste baitut praxi luze, sakon eta konplexu bat eduki arrén, oso gutti saiatu garela irakaskuntz politika koherente eta oso bati buruz.

Dena den, ez du artikulu sail honek dossier serio bati dagokion eskema logiko eta jarraitu baten itxura hartuko eta librekiro, gaiak burutu ahala, lerrokaturiko ditut. Are guttiago izan nahi du alternatiba bat, zeren eta ez baiteritzot serio Euskal Herrian dauden hamar eta piko alderdiek, arazo bakoitzari buruz, hamar eta piko alternatiba egiteari. Alderdi politikoei jakin behar lukete guttienik, alternatiba guztiez osaturiko multzoa ez dela alternatiba berri errefortzatu bat, nahaspila bat baino.

Eta alderdi politikoei sartu naizenez gero, exemplu gisa, zilegi bekít Donostiako EUTGen, Jose M. Barandiaranen omenaldia zela eta, zenbait partidu politikoen ordezkariak, eman ziguten show harrigarri bezain sineskaitza aipatzea.

Klarifikazio beharrean gaude eta beldur naiz partidu politikoei, beren formulazio globalizantekin, ohiko lauzpabost puntutxu ridukuluekin (zein tzuri modu hanpuru batez alternatiba deitzen baitiete) ez ote diguten basoa ikusten galeraziko.

HAURREN ADIMEN AURRERAPENERAKO PEDAGOGIA BATEN BILLA(1)

Izenburu honek laburki adieraziko luke SAIOKAK proposatzen duen metodologiaren muina eta zergatia. Hau izan da gure ikerketa pedagogikoa gidatu duen galdera: Nola eraikitzen da gure haurrangan adimena?

Piaget-en eskolako psikologoengandik jaso dugu zenbait argitasun geure galdera honetan. Eta gure saioa, datu hauen arauerako pedagogia apropos bat bilatzea izan da.

Lehenengoz eta behin, adimena edo inteligentzia ez dugu, besterik gabe, behin betiko emandako ezer, inguruarekiko harremanetan eraikitzen den pertsonaren kapazitatea baizik. Ikuspegi honetatik, beraz, adimena pausoz pauso eratzen da, aurreko eskema eta mailatan oinarritzen delarik. Psikologiazko ikerketen emaitza honek haurren adimen aurrerapena zehazki argitu du bere maila eta prozesuetan. Eta Pedagogia batek oinarritzat hartu beharko ditu emaitza hauk hezkuntza lan eta erakundeei arrazionaltasun eta efektibitate bat eskaini nahi badie behintzat:

Hona hemen, laburki bederen, adimen peda-



gogia batetarako geureganatu ditugun eritzi nagusiak;

1.- **AKTIBITATE PRINTZIPIOA:** Ezagumena eta ulermena ekintzatik datoz. Zerbait ezagutzea, zerbait hori ekintzaren bitartez eragitea eta transformatzea da, transformakuntza horren mekanismoen eta ekintza transformatzaileen arteko erlazioetaz konturatzeko. Adimenak, beraz, e-
strukturuatu egiten ditu transformakuntza hauk, errealitatea e-
struktura horietara asimilatuz. Honegatik esaten dugu adimena artezki ekintzari darraiola. Pentsamenduzko goimailako prozesuetan ere, ekintzak egin eta koordinatzean datza adimena, nahiz eta ekintza hauk barruratutako bide bat eraman. Barruratzen diren ekintza hauk dira edozein mailatako arrazonamenduren oinarriak, hots, **operazio** logikoak eta matematikoak. Eta operazio hauk beste e-
struktura zabalago batzutan eraikitzen dira errealitatea e-
strukturatuz. Ezagutzea ez da, beraz, errealitatearen estimulu bati erantzutea soilki, ekintzen koordinazio eta e-
strukturatutei errealitatea asimilatzea baizik.


Aktibitatea edo ekintza, haurraren motibazio-rik hurbilena izanik, bere adimenaren aurrerapenaren eragile funtsezkoena dugu. Eta aurrerapen hori geure zeregin pedagogikoaren zuzeneko helburutzat hartu badugu, metodologia aktibo edo ekintzaile bat erabiltzera bultzaturik gaude.

Saiokan proposatzen dugun materiale guztia-
ren asmoa hauxe izan da: haurren ekintzarako situazioak sortzen laguntzea. Honegatik hartu dugu proiektuetan oinarrituriko metodologia.

Haurraren ekintza guztiz aske izan behar da, hau da, berak eta bere kasaz eginiko ekintza, inork soluzio osorik inposatu edo proposatzen ez diolarik. Eta hortik abiatu gara, idatziriko proiektu batek sugerentzia moduan eragin dezakeelakoan.

Honez gainera ekintzak proiektu bezala planteiatzeak abantail gehiago ditu. Ekintzari, haurraren interes eta beharrei erantzuten dien helburu praktiko bat ematen zaio. Haurrak ez du egingo egite hutsagatik, bere interes ludikoari erantzunez soilki baizik eta bere beharrezan erantzuteagatik ere.

Bestalde, proiektuak ekintza hutsaren espontaneitatea nolabait moldatzen badu, iraupenaren truk egiten du, eta hau, haurrak bere ekintzen sekuentzia bera planifikatzera heltzea, halegia, lagungarriagotzat ematen dugu, zeren ekintzen



koordinaketak barruratutako operazioen e-
strukturaketa bultza baitezake. (1)

Projektu baten aurrerapenak ekintza bat barruratutako operazio bat bihurtzeko pausoak ematen ditu:

-Projektua erabaki eta eztabaidatzeak ekintzaren eta zereginaren ikuspegi orokor bat ematen du hasera haseratik, tarteko ekintzei lotura bat eman ez eta ekintzari lehenengo bultzada eman. Projektua egitean ekintzaren domeinua lortzen da, objektu konkretuen erabilkera dela medio.

- Projektua komentatzean eta egin denaren bitartez helburuak lortu diren ebaluatzean, ekintzaren domeinua lortzen da hizkuntza eta espresio mailan.

- Beste esperientzia eta informazioekin kontrastatzean ekintza hau adimen mailara eramaten da, ekintza berau barruratu. Barruratu eta gero, ekintzari bere sendotasun osoa aurkitzen zaio.

Ekin eta gero ulertzen du haurrak, bere kasaz zerbait aurkitu eta berrasmatu duenean.

2.- AURRERAPEN HONEN MAILAK ETA ERAGILEAK

Haurraren adimenaren aurrerapena epeka edo mailaka egiten da, maila bakoitza aurreko mailatan oinharritzen delarik. Eta haur oro, adin batetan nahiz bestetan lortu, mailaketa honi darraio. Aldian aldiz, maila bakoitzak ezaugarri bereziak ditu, adimenaren lorpen edo e-
strukturaketa bereziak, halebria. Lorpen berezi hau izanen dira, beraz, zuzenean bilakatu behar ditugunak gure ekintza pedagogikoaren bitartez. Ikasturte bakoitzean egin beharko dugun galdera hau izanen da:

(1) Helburu praktiko bat duen projektaturiko ekintza bat egin eta gero, bere ekintzaren ondorioa ikusten du haurrak, eta, era honetan, beste hurrengo ekintzarako motibazio gogorra aurkitzen du, ekintzen lotura eta koordinaketa bat lortuz.

adin honi dagokionez, zein aurrerapen lortu behar dugu geure haurraren? Baliagarriak izanen zaizkigu psikologiak ematen dizkigun erantzunak. Geure gelako haurrei egokitu beharko ditugu, eta, zer esanik ez, ahal den neurrian haur bakoitzari ere.

Baina, zerk eramaten du haurra mailan batetatik beste batetara, zeintzu dira haurraren adimenaren aurrerapena eragiten duten faktoreak edo eragileak?

a.- **Heldutasun organikoa** dago aurrerapen honen muinean: dinamika espontaneo bat darama haurrak bere adimenaren aurrerapenean. Hamasei urterarte edo hazten den nerbio sistemak baldintzatzen du adimenaren eraiketa eta, arlo honetan higie, fisiologia eta heredentzia baldintzapenak dira nagusi. Hala eta guztiz ere, heldutasun organiko hau ez da eragile bakarra adimenaren aurrerapenean. Heldutasunak, urtetik urtera, posibilitateak zabaltzen ditu, baina posibilitate horiek erabili egin behar dira eta erabilketa horretan beste faktore edo baldintzapen batzuk parte hartzen dute, bizi-inguruak eta heziketa batek planteia ditzakeen baldintzapenak hain zuzen.

b.- **Bizi-inguruko esperientzia:** Giza organismoak inguruko errealitateari egokitzeko daukan kapazitate nagusia adimena da. Egokitzeko honetan bi prozesu elkartzen dira. Alde batetik asimilatze prozesu bat, hau da, inguruko elementu edo objektuak subjektuaren e-
struktura ezagutzailerik egokitzen dira; subjektuak gai den arauera ulertzen ditu gauzak. Bestalde, akomodatzeko prozesu bat ematen da ere, hau da, subjektuaren e-
struktura ezagutzailerik aldatu egiten dira, inguruko errealitatearen esperientziak agintzen duen arauera. Subjektu eta objektuaren arteko alderantzizko bi prozesu hauetatik sortzen den sintesiari egokitzeko deritzogu. Egokitzeko honen funtzionamendua erregulatzen duen kapazitatea eta egokitzeko honetan eraikitzen den giza e-
struktura adimena da.

Errealitatearen esperientzia dago, beraz, adimenaren eraiketaren oinharritzeko prozesuan. Eta esperientzia hau, ez esannahi pasibo edo pertzeptibo batetan ulerturik, baizik eta zentzu egokitzailerik batean batez ere. Esperientzia da ekintza batek uzten duen ondorio egokitzailerik. Bi eratako ekintza eta esperientziak daude: ekintza eta esperientzia fisikoak bata eta logiko-matematikoak besteak:

- Esperientzia fisikoak: objektuaren posizioa, higidura edo propietateak aldatzen dituzten modifikazioak egiten direnean objektuaren natura ikeritzeko. Objektu hau manipulatu lortzen da, abstrakzio sinplez, esperientzia fisikoa.

- Esperientzia logiko-matematikoa: objektuengandik baino, objektuekin egiten diren ekintzetatik, abstrakzioa eginez, sortzen den egokitzailerik da.

Hau honela izanik, haurraren aurrerapenari dagozkion bi era hauetariko esperientzia aproposak eskaintzea izanen da gure hezitzaile lan eta helburua. Eta beste berriz azpimarratzen dugu, hemen haurrak berak bere esperientzia egiten duela, eta ekintza horretan berberak adimenaren aurrerapena aurkitzen duela.

Era honetako esperientziak ohiturazko Natura eta Matematika arloetan lan genitzake bereziki.



musika

JOSU LOROÑOEN ORKESTRAREN AZKEN LANA

Azken garaietan, salbuespen bat edo bi kenduta, akordeoi musikaz lan txar eta barregarri batzuegin dira, bai doinu erraz eta landugabetasun batetaz, bai teknika mailan interpretazio gaizki egingadako grabaketa.

Baina tresna honen benetako erabilketan, beti nabartu da Bilboko Josu Loroñoren akordeoi orkestra.

Orkestra hau, 1963. urtean jaio zen, eta ordutik hona berrehun saio baino gehiago eman ditu, Euskal herrian eta atzerrian, Bizkaian gehienak izan arren. Orkestraren doinu guztien konpokatak, bere zuzendaria den Josu Loroñok egiten ditu eta bertan ikusten dira nola erabili behar den seriotasun batetaz tresna hau, eta nola erlazionatzen den euskal musikarekin. Eta konbinaketa

hau ikusteko nahiko dira orain arte ateratako diskoak.

Egunotan atera da azkenekoa eta laugarrena den diskoa. Disko osoa euskal musikaz beterik dago eta Jose Franco, Zaragozako musikalaria eta euskal musikaren ikertzaile onari eskainirik dago.

Baina azter dezagun disko honen mamia. Bertan ikus dezakegu, euskal musikaren barnean, barietate handi bat. Hala Josu Loroño, Moy Egaña eta Beobidearen biribilketa alaien (AURRERA BETI, EUSKAL HERRI POLITA GORA, GORA GAZTEAK) ondoan, J. Franco eta Urrangoetxearen martxak (EUSKAL HERRIKO ABESTIAK, HIMNO AL ATHLETIC), abestiak (ENE AMA, OÑAZEZ), Vallejos eta Urrizelki eta Arrateren zortzikoak (AURRERA,

EL CRISTO DE LEZO), Gabon abesti bat, Erzillarena (JAUNGOIKO SEMEAREN JAIOTZARI) eta Francoren suite bat (EUSKO ELEZKIAK) agertzen dira.

EUSKO ELEZKIAK, hiru zaitan (a) Hasiera, (b) Sebaska ondoan eta (c) Gabon abestiak) banaturik dago, berau, diskoaren doinurik hobereena izanik, kontrastan, posibilitate eta Orkestraren kalitatea sinfoniko mailara altxatuta argi eta garbi nabaritzen dira.

Hola ba, musika onaren entzuleentzat merezi duen disko bat da hau benetan. Penagarri da gehiago ez entzutea Euskal herriko antzokietan Orkestra hau, zeren eta, bere saioak diskoko interpretazioak hobatzen baititu.

ERLETXE

anaitasuna

Bizkaia
hamabosterokoa
ZUZENDARIA:

Joan Mari Torrealdai

Urteko abonamendua:

Bertorako 1.000 pezeta
Latin Amerikarako 1.150 pezeta
Europa eta Ipar Amerikarako 1.300 pezeta

Ale bakoitza: 50 pezeta

Aldizkari hau irakurri nahi baduzu, bete ezazu argi argi

ondoko txartela eta bidal helbide hontera:

ANAITASUNA

Zabalbide, 68., Bilbo - 6

Posta kaxa: 495. Tfnoak: 433 58 00 - 09 - 08 - 07

Izen-deiturak

Bizilekua

Herria

Probintzia Tel



kirolaren pertsonaiak: 8. POLITIKA

Batzuren ustez politika edozein arazo konpotzeko bide magikoa denez, ez da harritzekoa, kirolan ere politikak eragin handia edukitzea. Maila eta modu ezberdinetan parte hartzen du politikak kirolan.

Kirolari buruzko politikaz, kirolaren erabiltze eta manipulatze politikoaz eta kirola harma politikotzat hartzeaz hitzegiten da. Arrazoi hauengatik guk geuk kirolaren pertsonaia gisa hartuko dugu eta aipaturiko hiru mailetan aztertuko dugu.


KIROLARI BURUZKO POLITIKA.

Gaurko politikaren kritikatik hasiko gara. Maila ofizialean, kirolari buruzko politika, munduko lehiaketetan tituluak eta dominak irabaztera zuzentzean datza nagusiki. Parte hartzea alde batetara utziz, garrantzikoena irabaztea da. Prestigioa lortu nahi da eta garaipenek prestigioa dakar-te. Horrela, pena handirik gabe diru katitate izugarriak erabiltzen dira, lehiakaeta internazionalak bultzatzeko (Galde izeaiezue, adibidez, Espainiako taldean Argentinarako pasea atera duten kirolariei). Horiek ez dute Moncloako hitzarmena bete behar...

Planteiamendu honen prezioz, jende gehienak, horrela uste du eta hori nahi du; eta jendeak kirolari ikusten dion helburu bakarra, lehiaketetan besteen indarrak menperatzea da. Hauxe da ideia dominatzailea eta ideia honek jotzen duen musikaren erritmuaren arauera dantzatzen dugu konturatu gabe. Gaur eguneko kazetariak ere bultzatu egiten dute ideia hori; zenbat aldiz ez ote dugun irakurri, partidua eskasa izan arren puntuak irabazi direla, eta denak pozik!

Ondorio bezala, selektibitate izugarria gertatzen da kirolarien eta azkenean, kirola praktikatzen dutenak, horretarako espezialki dotaturik daudenak dira soilik. Kirola elite baten eskuetan geratzen da. Lehenik eta behin, federatu egin behar da;

eta nolabaiteko erraztasunak edukitze-ko, norbait izan behar da kirolaren munduan. Jende arruntak ez du aukera errazik. Dirua edukiz, seinoritoen klub selektu batetan sartu ahal izanen da. Bestela, jai chugu, kirola egiteko behar-tzat.



Los mundiales de Argentina.- Hemen egingo dira lehiaketak. 200 metroara gartzelak beterik daude.

Idea honen arauera, haurrei
 itxikitatik sartzen zaie lehiaketa eta
 konkurrentzia itsua. Garrantzizkoena
 RABAZTEA dela sinets erazten diete.
 Lotsagarria da, honetaz TORNEO ize-
 nekog progma : konkurrentzia ereite-
 ko eta lantzeko bide ederra. Azken as-
 te hauetan, saski baloi-kampionatuko
 finala, haurren arteko antiesportibi-
 tatearen esenplu bikaina izan da.
 Ordea, Espainiako telebistak eredu-
 tzat agertzen digu.

Ene ustez, kirol politika guztiz
 beste era batetara planteiatu behar da.
 Kirola, - kultura bezala - pertsona guz-
 tiak - zahar eta guztiek - behar duten
 gauza bat da. Ez luxu bezala, ia ogia
 bezain beharrezkoa den zerbaiz baizik;
 herri sanao izan nahi badugu behin-
 tzat. Horrela, eta lehiaketa erabat baz-
 tertu gabe, kirola heziketa eta kultura-
 ren parte kontsideratu behar da. Parte
 hartzea inportanteena bihurtu behar
 da eta horretarako mentalitate-aldake-
 ta bati eman behar zaio hasiera. Ba
 dakit zaila dela, ia ia utopia, zeren eta
 gar eguneko egitura osoa lehiaketa-
 kirola bultzatzeko muntaturik baitago:

Federazioak, Delegazioak, Informabi-
 deak, Olimpiadak, ...

Euskal Herrian ba dirudi beste-
 lako kontzepzio eta kutsu bat eman
 nahi diotela beren aktibitateari Euskal
 Indarra izeneko erakundearen barnean.
 Lehen pausoa da; zorianak, beraz. Bi
 ohar egin nahi nizkioke ordea. Lehena,
 lehiaketa-kontzeptuari buruzkoa, bero-
 ri gairditzeko mentalizatzte bidean jar
 daitezten. Bigarrena, hizkuntzari bu-
 ruzkoa: izenarekin eta egituratze lu-
 rraldeari buruz zuzen jokatzeko dau-
 den bezala, hurralde honen hizkuntza-
 rekin ere berdin joka dezaten (eta ez
 simbolikoki soilik).

KIROLAREN MANIPULATZE POLITIKOA.

Adibide baten aipamenetik has-
 teko, oso ongi dago Espainian azken
 urteotan egin den manipulapena. Ge-
 hienok ba dakigu, gure ikastetxeetan
 "Gimnasia" eta "Formacion del Es-
 piritu Nacional" (sic) asignaturen
 irakasleak pertsona ber bat izan direla.
 Eta ez kasualitatez: Kontrol ideio-
 gikoa gazte denboran egiteko (FEN),
 gazteak asko gustatzen zaien aktibi-
 tate baten bidez erakarri. behar; eta
 zer hoberik gimnasia eta kirola baino.
 Hori dela eta, "Frente de Juventudes",
 "Seccion femenina" eta "Movimiento"
 direlakoek guztiz kon-


trolaturik eduki dute kirol gertala-
 rien eta irakasleen mundua. Eta,
 arazoari zerbaiz falta bazitzaion,
 hor genituen Maiatzaren lehenean
 zentralismoaren katedralean Santiago
 Bernabeu estadioan eta diktadorearen
 aurrean urtero egiten zen erakusketa
 esportibo-sindikala.

Langileek ere beren gorputza lan-
 tzeko (?) aukera zutela frogatu behar
 zen (arima lantzeko aukerarik ez
 bazuten ere.)

"Panem et circensis" esaldia
 erromatarren denboran esana bada ere,
 etengabe garai guztietako agintari ge-
 hienek praktikara eraman nahi ukan
 dute. Diktadoreak ohi dira trebeena

nik, futbol-kampionatua eta Olin-
 piadak mundu mailako gertaka-
 ri nagusienak dira. Kirolaren erri-
 tu hau lau urtetarik behin hos-
 patzen dira, solemnitare handiz.
 Olinpiadak dira, dudarik gabe, e-
 rriturik gorena, bertan, munduko
 Estatu gehienek parte hartzen
 baitute: hamabost bat mila kiro-
 ri, eta hauetaz gainera, kazetariak
 gertalariak, laguntzaileak eta tu-
 ristak. Ikusgarria da.

Lehenago esan dugunez,
 propaganda aldetik garrantzi han-
 dia du, eta hori dela eta politi-
 kazko harma gerta daiteke. He-
 goafrikak eta Rhodesiak pairatu
 duten betoa, haien politika arra-
 zistaren salhatzaile indartsua izan



**Mundialetarako zozketaren komedia. Dena aurrez
 predestinatarik dago. Negozio izugarri bat.**

horretan, ongi baitakite kirol lehi-
 ketetan lorturiko garaipenak beren
 menpeko frustrazio eta konplexu as-
 ko asetzeko eta lasaitzeko bide dire-
 la. Kontextu honetan juzkatu behar
 dira, duela hamabost bat urte R.Ma-
 drid futbol-taldearen inguruan sortu-
 riko triunfalismo eta simbolismoa, edo
 eta aurtan Argentinan ospatzeko den
 munduko futbol-kampionatua. Olinpia-
 den antolaketan ere, prestigiozko prop-
 agandak du pisurik handiena, Estatu-
 en izen onerako guztiz onugarriak ger-
 ta baitaitezke. Kontextu honetan har-
 daiteke, kasu, Moskun ospatzeko den
 hurrengo Olinpiada.

KIROLA, HARMA POLITIKOA

Konkurrentzia kontzeptua
 mundu osoan zehar nagusia iza-

da; eta presioa egiteko bidea. Es-
 tatu Batuetako beltzek, beren ki-
 rolari olinpikoen bidez mundura-
 tu zituzten beren kexak. Palens-
 tindarrek Munich-eko Olinpiada
 aukeratu zuten, trajedian b:katu
 zen egintza bat egiteko. Hurren-
 go futbol-kampionatuaren gaine-
 an boikotaren fantasma dago, Vi-
 dela-ren erregimena dela eta...

Dena den, kirol-espekta-
 kulu hauk aurrera doaz. Olinpi-
 adak ez daude hiltorian, zeren e-
 ta, azken batez, hipokresiaren
 munduan bizi baikara. Lehiaketa
 horik anaien artekoak direla ema-
 ten da adieraztera; eguneroko bi-
 zitzan Estatu batzuk besteak za-
 paltzeko, hurrupatzeko eta izo-
 rratzeko diharduten arren. Eta
 besteren zapalkuntza eta dikta-
 dura salhatzen duten Estatu hori-
 etan, era askotako zapalkuntzen

izkutatzaile dira. Demagun Frantzia, adibidez. Bertan Argentina-koaren aurkako ahotsak entzun dira gogorki; eta, egia esan, ez zaie arrazoirik falta. Baina bitartean, demokrazia burjesaren ama (edo aita, agian biak batera) den Estatu honek, hainbat nazio zapaltzen ditu. Noski, Argentinan basati batzu daudela adieraziz,

nolabait Frantzia paradisia dela adierazi nahi da. Ordea, bertako gartzelak ez dira eredu imitagarria eta beraien tribunala —justiziaren exenplu omen— ez dute nazio problematika kontutan hartzen; eta dudarik baduzue, Alberto Mendiguren adiskideari galdede. A! Eta honekin ez dut inola ere Videla justifikatu nahi. Baina beste batzu salhatu nahi ditut, zeren eta eskunarru zuriz eta bat ere zikindu gabe, demokrazia-zen izenean itotzen baitituzte nazio tikiak.

IDEIAL OLINPIKORIK BA OTE?

Gaur egun, kirol lehiaketak gidatzen eta kontrolatzen dituzten erakundeak, Batzorde Olimpiko Internazionalaren eratoikoak dira gutti gorabehera. Berak XIX. mendearen bigarren partean sorturiko ideia olinpikoren jarraitzaile dira. Ideia horretan, kirolaren bidez Estatuaren arteko tregoa antzeko bat jartzen da. Eguneroko bizitzako burruka alde batetara utziz, kirolan denak lagun; zerrikeriak bazter eta garbi joka. Hortik datorke esaldi famatu hura: "Kirola eta politika ez dira nahastu behar". Baina hori guztiori azaleko jantzia da. Itxuraz baino ez da horrela. Eta konkurrentzia itsuaren bidez kirol



Lanbide bat ote da?

zelaia burruka-zelai bihurtzen dira, eta Estatu Batuetako eta Sobiet Batasuneko kirolarien artean benetako gerra bat gertatzen da, zeinek domina gehiago irabazteko. Olinpistek ez dute hori onhartu nahi, eta parte hartzean pozik daudela esanen digute, eta anaiak bezala jokatzeko dutela, eta abar. Horregatik ez dute begi onez ikusiko Rhodesia eta Hegoafrikaren aurkako politika esportibo, edo Txina eta Formosaren arteko problema,... Konkretuki, Batzorde Olimpiko Internazionalaren burua zen Avery Brundage jaunak, abandonatu egin zuen bere postua 1972. urtean Rhodesiari eginiko jokoagatik.

Hala ere, Olinpiadak eta kirol kanpionatuek aurrera diraute; eta gaur eguneko komunikabide eta informabideak direla, inoizko indartsuen direla esan daiteke. Espektakulu zoragarriak dira, eta beraien inguruan interes handiak daude. Estatuak interesa dute; eta hor dago gakoa. Baina galdetzen eta pentsatzen hasiz gero, merezi ote du ideial olinpiko horrekin segitzeak?. Niri "Reina por un dia" izeneko programa datorkit burura. Kasu honetan "egun batetarako anaiak", enparatu egunetan "elkarrentzako otsoak" izan arren.

J. R. Bilbao

ORTOGRAFIAZKO ZENBAIT PROPOSAMENDU (1)

Batasuneranzko bide luze eta neketsuan, hitz batzu idaztean, forma bikoitzak ageri dira. Idazle batzu (edo idazle-eskola batzu) bati loturik ageri dira eta beste batzu, besteari. Eta ikasleak galdurik geratzen dira, zein aukera jakin gabe. Adibide batzu aipatzearean, hona hemen horrelako batzu: **proiektu/projektu, borroka/burruka, nigar/negar** Izatez, bi formetarik edozein aukera daiteke batasunerako, baina arrazoi desberdinengatik, bataren edo bestearen zale gara. Hauetan ere batasuna egin behar dugulakoan, on litzateke arazoa plazaratzea eta gure ustez onena denari zergatik hobe deritzogun azaltzea. Asmo honekin (eta onekin) dakart, ba, gaia plazara.

PROIEKTU ALA PROIEKTO?

J famatuaren ahozkatzea dela eta, ba dirudi jendeak beldur diola letra horri. Beharbada horregatik, batzuk **proiektu** forma erabiltzen dute, honela ez baita j-rekin problemarik sortzen. Nik neuk, ostera, hobe deritzot **projektu** formari, eta azaldu egingen dut neure arrazoibidea.

Lehenik, forma ortografiko hau askoz ere unibertsalago delako. Gaztelaniaz forma hauk y batez idazten diren arren (eta ez beti), mendebaldeko hizkuntza gehienetan eta nagusienetan j batez idazten dira: **projet** (frantsesez), **project** (ingelese)....

Bestetik, irakurterazago gertatzen da hitza j kontsonantea jarritz, horrela hiru bokaleren segida (-oie-) bazterten baita. Eta, hau eritzi pertsonala den arren, estetikoki ere politagoa delakoan nago.

Hori dela eta, i/j letren arteko eztabaidari dagokionez, j-ren alde ageri naiz, eta idazkera hau proposatzen dut era horretako hitzentzat. Adibidez: **projektu, projektatu, majuskula, majore, projekzio, injekzio, bijekzio, dejekzio,.....**

Hitz honekin bukatzeko, bukaerako o/u letren aukerari buruz, ez dut arrazoi berezirik, baina u letraren aldeko naiz, aurreko bokalea e denean, ondoko hitzetan bezala: prozesu, efektu, intsektu.

ARREN ETA -ARREN

Guztiok dakizue, bi modu eta esangura desberdinez gehitzen zaio partikula hau aditzari: **esan arren eta esatearren**. Idazle batzuk aditzari loturik idazten dute kasu bietan. Beste idazle batzuren ustez -eta enean ere bai- hobe dateke lehen kasuan banaturik idaztea (**esan arren**) eta bigarrean, loturik (**esatearren**). Ikus dezagun zergatik.

a) **Esan arren**: Kasu honetan menpeko esaldi kontzesibo bat dugu. Esaldi hauetan aditz laguntzailea eliptikoki dagoela esan dezakegu. Nolabait esateko, aditz laguntzailea kendu egiten da esaldia arin eta laburtzeagatik. Gehienetan aditz laguntzailea kendu arren, esaldia argi ulertzen da, eta hizkuntza mintzatuan ez da problemarik sortzen, argitasunak, momentuan eska baitaitezke. Kasu batzutan, ordea, zentzu askotako esaldiak ageri direnez, elementu argigarriak sartu behar izaten dira, aditz laguntzailea sartzen ez bada. Beronek argitasuna ematen du beti. Adibidez:

Gezurra esan arren, ez naiz haserratu

Nork esan du gezurra? Nori esan dio?

Esaldi honek ez du ezer argitzen; guztiz inkonkretua da. Pertsonen jokoa argitzeko, ize-nordeak ipini behar izaten dira. Honela:

Zuk niri gezurra esan arren, ez naiz haserratu
Aditz laguntzailea erabiliz ez da horrelako problemarik:

Gezurra esan didazun arren, ez naiz haserratu

Zer esanik ez, errazago (?) da aditz laguntzaile-rik gabeko forma; eta, esfortzu eta neke ttipienaren legearen arauera, horretara jotzen ari gara hizkuntza mintzatuan. Dena den, idaztean aditz laguntzailea erabiltzera jo behar genukeela uste dut.

Edozein modutan, aditz laguntzailea aditz nagusiaren eta **arren** partikularen artean idazten denez, ba dirudi hobe dela banaturik idaztea. Honela:

Gezurra esan arren, ez naiz haserratu

Zurekin etorri arren, ez da zure laguna

Ezezko esaldiak egiteko modua ere, hobeki moldatzen da era honetan:

Ezagutu ez arren, berarekin hitz egin dut

Aditz laguntzailea jartzean ere, nik neuk banaturik idatziko nuke, batzuk loturik idazten duten arren.

Egia esan diegun arren, ez digute sinetsi

Lana egin ez dugun arren, lasai geratu gara

b) **Esatearren**. Kasu honetan esaldiaren zentzua ez da kontzesiboa, kausala edo finala baizik. Bi esangura dituela esan dezakegu, jatorriz bi esangurok bakar bat izan badira ere: kausa bat edo helburu bat adierazteko erabiltzen da.

Kasu bietan, **-arren** partikula aditz infinitibo substantibatuarekin erabiltzen da eta **-agatik** edo **-ko** atzizkien esangura berberaz erabiltzen da. Hori dela eta, bigarren hau ere loturik idazten direnez lehena ere loturik idatziko nuke.

Egia bat esatearren, gartzelara eraman dute Kantaldia entzutearren, edozer gauza egingen luke

Ikusten denez. lehen esaldiak zentzu kausala du eta bigarrenak, zentzu finala (helburua adierazten du nolabait). Lehen kasuan **esatearren - esateagatik** eta bigarrean **entzutearren - entzuteko**. Beraz, kasu bietan loturik idatziko nuke.

anaitasuna

euskal herricari,
informazioa
euskaraz.


EUSKAL PRENTSA
EUSKALDUNON HITZA

zeruko
ARGIA

GEU
GARA
EUSKAL
PRENTSA

anaitasuna

zeruko
ARGIA



ANAITASUNAREN OHARRA

Etxe honetan ditugun zenbait arazo konpon-
tzeko asmoz erabaki konkretu batzu hartu izan di-
tugu. Irakurle guztiek jakin dakizue zenbaitetari-
no ahula den gure egitura, bai ekonomikoa eta bai
administrazioa. Beraz arazo hauek uztartu nahirik
eta pentsatuz epe luzera gure irakurleentzat hobe
izanen dela, erabaki dugu gure fitxa guztiak erregu-
larizatzea. Honela bada, eta aurrez jakinik hainbes-
te aldiz molestatzeko zaituztegun beste batetan egi-
teak inportantzia gutti izanen duelakoan; eskatzen
dizuegu gutun batez edo eta telefonoz:

- 1) Egina duzuen harpidetza berriro baieztatzea es-
pezifikatuz zuen helbidea eta bankuko kontu ire-
kia.
- 2) Etxea aldatu baldin baduzue helbide berria ko-
municatzea.
- 3) Ez badituzue erregulariki gure zenbakiak jaso-
tzen, hau ere komunikatzea, zeren Posta eta bana-
keta dela eta hainbat istilu larri baititugu.

Azkenez, eta, barkamen berriro eskatuz zera
ere diogu, hots, bost hilabetez —hamar zenbaki-
tan— iraunen duela ohar honek Anaitasunako hor-
rialdeetan, geroztik berririk espresa ez dutenei
harpidetza txartela kendu egin beharko diegu.
Noski, esan beharra dugu ere aurtengoa pagaturik
dutenei ez zaiela fitxarik kenduko, baina hala ere
komeniko litzaiguke arestian esandakoa konpliztea.

Beno, hori zen guztia. Gu ere krisisean gara.

IGARKISUNA

Oraingoan hasita, ANAITASUNAREN zenbakietan
irakurleen asmamena frogatzeko igarkizun bana ja-
rriko dugu. Erantzuna zenbaki berean azalduko da,
beste horrialde batetan baina. Hona lehenbizikoa:

EGITEN DUENAK BERETZAT EZ DU NAHI.
EROSTEN DUENAK EZ DU USATZEN, ETA
USATZEN DUENAK EZ DU IKUSTEN. Zer da?

ESAERA ZAHARRA

MARI GUREA GORUETAN, BEHAR EZ DEN
ORDUETAN

Peru Abarka-tik jasotako atsotitz honek zera esan
nahi du, ba direla pertsona batzu, behar dutenean
lanik egin ez arren, gero, unerik desegokienean eta
beste zerbait egin beharra dagoenean, lehen egin ga-
be zaukaten lanean jo eta ke saiatzen direnak, ho-
rretan lan berria ez giteko atxakia bilatuz.

ESAERA ZAHARRA


LANTZA ESKUAN DUENAK GAUZA GUZTIAK
BEREAK

1596. eko bilduman agertzen den esaera zahar ho-
nek zera esan nahi du, harmen eta indarraren aurre-
an bestelako arrazoi eta eskubide guztiak makur-
tzen direla.

IGARKIZUNA


EZ NEUKANEAN EMAN NIZUN; ORAIN BA
DAUKAT ETA EKARZU. Zer da?

9



Egilea: Larry Trask

8



Egilea: Larry Trask

GURUTZEGRAMA

Euskal probintzietatik bati dagozkion hitz asko ditu gurutzegrama honek.

LUZETARA

2. Atzizki adberbial.
3. Hemen zen Axular erretorea.
6. Dolu, garbai.
8. Tellurio (symbolo kimiko).
10. "... jo egin naute mintza arazteko" ...
12. "Herri" eta hitz imaginatu honetik krea-tu zuen Sabin Aranak "aberrri" hitza.
13. Cofradia de....., probintzia honen aintzinako gobernua.
16. Ipar aldean, r eta... nahasten dituzte.
17.Egin!
18. Ekitaldi, teatro baten atal.
22. Eguerdi baino lehen.
24. Domunistikuna.
26. Rusia'ko hibaia; honi buruz dago kanta ezagun bat.
28. Probintzia honetako herri (Villarreal, gaztelaniaz).
31. Probintzia honetako ardo oso...da.
33. "... bezala itsasoan..."
35. Behar, zeregin.
36. Lagunik gabeko
39. "Zu ote zara aitaren...?" (Bi hitz).
42. "Nere ama... zait, lanak itota".
43. Egin (forma laburra).
44. "...., Mari Migel..."
45. "Maritxu nora zoaz eder...hori?"
47. Probintzia honetako herri edo kanta bat.
50. Probintzia honen hiriburua.
52. "... gira Euskadiko gazteri berria".
53. Zarautz ondoko herri.
54. Gai, materia.
56. Bizkaiko herri.
57. Nabari izan (infinetiboa).
58. Probintzia honetako konposatzaile.
60. Indio (symbolo kimiko).
61. Probintzia hau.

GOITIK BEHERA

1. Probintzia honetako herri; euskaraz mintzatzen da han.
4. Zezenak, bi ditu buruan.
5. Atzizki alatiboa.
7. Probintzia honetako gramatikolari (egiazko izena, Antonio Urrestarazu).
8. Eskoziako klan bakoitzak hau du.
9. Probintzia honen eta Euskal Herriaren hegoaldeko muga.
11. Zilar (Symbolo kimiko).
14. Arrain moeta bat.
15. "...zera".
19. Hendrike....., probintzia honetako euskalari.
20.Knor, probintzia honetako kantari.
21. Probintzia honetako herri (Salvatierra, Gaztelaniaz).
22. Euskadi...ala hil%
23. Obediente, eskurakoi.
- 25....Txabola, probintzia honetako trikuharri. (dolmen).
27. Gizonezko.
29. Lagatu.
30. Plater handi.
34. Potentzialezko partikula.
37. "Gabe" adierazten duen aurrizki
38. Alegeraki.
40. Boumedienne-n herria (laburpena).
41. Lehia.
46. Atzizki konparatiboa.
47. Edari.
48. Eskuinaren kontrako.
49. ala ardo, haurren jolasa.
51. Gizon bati deitzeko hitz.
55. Gogoia.
57. Gertatu (infinetiboa).
59. Irlandako talde politiko.



Has zaitetz gutaz bestela pentsatzen.

Gurekin harremanetan ari diren guztiei gauzak ikusteko beste era bat eskaini nahi diegu, tratuetarako modu berri bat, eta zerbitzu osoagoa ere bai. Geroak jadanik orain egiten dizkigun eskabideetara egokitu nahi dugu geure jarrera. Horrexegatik geure buruari aurreranzko projekzio bat jarri diogu helburutzat, orain arteko aurrerabidean izan garen baino hobeak izan gaitez. Guk guztiontzat hobe izango den etorkizuna moldatzen segitu nahi dugu, eta hori gaurdanik egiten hasi beharra dagoela ongi dakigu. Geroa hementxe dago eta.



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

geroa hementxe dago.

Gipuzkoa besterik ez dugu gogoan hargatik Probintzial da gure izena.



Gure probintziaren aurrerabidean gero eta lankide sutsuagoak izateko prest gaituzu: bai nekazaritzan, bai industrian, bai merkatalgoan, bai komunikabideetan,... edozein alorretan. Gipuzkoan bizi maila goratzeko bidea gerta litekeen guztian. Probintzial izena daramagu eta gipuzkoar aurrerabidearen alde ari gara ahaleginetan beti ere.



GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXA PROBINTZIALA